

artolka



LENIN, 1924-2024

GEDAR

Gure helburua Leninen teoriaren puntu nodalak seinalatzea izan da, eta puntu horiek sistema kategorikoaren barruan identifikatzea eta ordenatzea; azken batean, hierarkia politiko bat egitea haren pentsamendua historizatzeke, eta, horrela, biziberritzeke eta gaurkoteke. Izan ere, gure ustez, hura gaur egunera ekartzeko modu bakarra da eguneratzea. Eguneraketa hori ez da hura berrikusteko asmoz egin behar, baizik eta Lenin bere pentsamendua lantzerantz eramane zuten zeregin berberak orainaldian identifikatzeko; zeregin leninista gaur egun identifikatzeko. Bakar-bakarrik oraingo gure zereginak ematen dute Lenin gaur egun berpizteko aukera. Lenin momifikatu baten oroitzapena, distantziatik, hura hiltzeko beste modu bat baino ez da.

Edukia

6

10

20

30

40

54

64

EDITORIALA

Arteka

Lenin 2024

KOLABORAZIOA

Nahia Santander

Eskubide politikoak eta iraultza

KOLABORAZIOA

Dani Askunze

Auzi nazionala leninen obran, auzi politikoa

KOLABORAZIOA

Mario Aguiriano

Hegemoniaren agertokia

HISTORIA ERREPORTAJEA

Marina Segovia

Testuinguru historikoa eta eztabaidak III. Internazionallean

KOLABORAZIOA

Alex Fernández

Hamarkadak diruditen asteak: Lenin, Estatua eta iraultza

KOLABORAZIOA

Aitor Martinez

Inperialismoa, zentzu politiko batean

Lenin 2024

Editoriala

2024an 100 urte bete dira Lenin hil zela. Mendeurrenaren harira, Ikerketa Sozialisten Institutuak (ISI) nazioarteko kongresu bat antolatu zuen apirilera, eta teoria iraultzailearen eta Leninen pentsamendu politikoaren gaurkotasuna aldarrikatzea izan zen helburua. Zenbaki honekin, helburu berarekin bat gatoz, eta teoria iraultzailea eta estrategia sozialista sendotzeko ekarpen bat egin nahi dugu; horretarako, tradizio sozialistaren ordezkari handi eta onenetako baten militantzia politikoa defendatuko dugu, gutako baten militantzia politikoa alegia.

Nahiz eta zeregin handia izan, eta ezinezkoa bada ere aldizkariaren zenbaki bakar batean barne hartzea, gure helburua Leninen teoriaren puntu nodalak seinalatzea izan da, eta puntu horiek sistema kategorikoaren barruan identifikatzea eta ordenatzea; azken batean, hierarkia politiko bat egitea haren pentsamendua historizatzeke, eta, horrela, biziberritzeko eta gaurkutzeko. Izan ere, gure ustez, hura gaur egunera ekartzeko modu bakarra da eguneratzea. Eguneraketa hori ez da hura berrikusteko asmoz egin behar, baizik eta Lenin bere pentsamendua lantzerantz eramanez zeregin berberak orainaldian identifikatzeko; zeregin leninista gaur egun identifikatzeko. Bakar-bakarrik oraingo gure zereginak ematen dute Lenin gaur egun berpizteko aukera. Lenin momifikatu baten oroitzapena, distantziatik, hura hiltzeko beste modu bat baino ez da.

Komunismoa, egungo errealitatearen ukazioa den heinean, errealitate horretan jardunez eta haren kontraesanak mugara eramanez bakarrik heda daiteke; hau da, gauzen egungo egoeraren ukazio erreal gisa

Zenbaki honetan Leninen pentsamendua ulertzeko funtsezkotzat jotzen ditugun sei gai eskaintzen ditugu.

Lehenak eskubide politikoen aldeko borrokaren eta iraultza sozialistaren arteko harremanari egiten dio erreferentzia, 1917ko iraultza sobietarrean eta gaur egun. Tsarraren autokraziaren kontrako eta proletariotzaren eta nekazarien diktadura demokratikoaren aldeko borrokak aukera ematen digu –Errusiako momentu horretako errealitatean proletariotzaren diktadurara igartzeko berariazko trantsizio espezifiko gisa– errealitateak aurkeztu dizkigun berehalako zereginetatik komunistok zein zentzutan ezin garen aldendu ulertzeko, eta zein zentzutan ez den komunismoa sistema kapitalistaren kontraesanen aurka modu absolutuan hedatzen den teoria abstraktu bat, baizik eta gehiago den horren kontrakoa. Komunismoa, egungo errealitatearen ukazioa den heinean, errealitate horretan jardunez eta haren kontraesanak mugara eramanez bakarrik heda daiteke; hau da, gauzen egungo egoeraren ukazio erreal gisa. Eskubide politikoen aldeko borrokak, Leninen ikuspegiaren arabera, kontraesan horiek areagotzea du helburu, bai eta proletariotzaren bizi- eta borroka-baldintzak nabarmen hobetzea eta gero eta proletario gehiago klase-borrokaren eremu politikora batzea ere.

Bigarrena Leninen ikuspegiaren garrantzi berezia hartzen duen eskubide politiko batekin lotuta dago: nazioek autodeterminaziorako duten eskubidearekin. Eskubide politiko bat den aldetik, hura aitortzeak beste edozein eskubideren funtzio eta helburu berak betetzen ditu. Hala ere, nazio-aziarekin lotutako eskubide berezia den heinean, egungo joera nazionalistak deuseztatzea da haren helburua, nazioen arteko harremanak tenkatzen baitituzte, proletarioak elkarren aurka jarritz. Nazioen arteko berdintasunerako eta proletariotzaren nazioarteko batasunerako dei bat da.

Hirugarrenak Leninen ikuspegiaren hegemonia proletarioaren kontzeptuaren errebasoa egiten du proletariotzaren eta nekazalgoaren arteko aliantzaren defentsaren testuinguruan. Leninek erantzuten zion gai nagusia honako hau zen: nola eraiki sozialismoa Errusian, nekazariak gehiago nabarmena ziren herrialde batean, eta nola egin lan hori proletalgoaren zuzendaritzapean, kopuruz askoz ere gutxiago izanda? Hegemoniaren eta botere proletarioaren auziari krisi iraultzailearen testuinguruan emandako erantzunak dira, hain zuzen ere, proletariotzaren eta nekazalgoaren diktadura demokratikoa edo Politika Ekonomiko Berria.

Laugarrenean, Leninek Hirugarren Internazionallean zuen taktika eta ezkerkeriarekin zituen eztabaidak errepatatuko ditugu. Iraultzaren urgentzia, zeinak boltxebikeen kezka izatetik errusiar guztien eta herrialde guztietako proletariotzaren zati handi baten bizitzan presente zegoen aktualitate izatera igaro baitzen, neurri eraginkorrak eskatzen zizkion komunisten nazioarteko antolakuntzari. Horrelako testuinguru batean, non boltxebikeek boterearen konkistara jauzi egin zuten Errusian, Munduko Iraultza Sozialista bizitu eta hura Europan zehar zabaltzeko lehen urrats gisa, hainbat eztabaida izan ziren ezkerkeriarekin, hala nola hartu beharreko taktika iraultzaileari eta komunisten nazioarteko borrokaren batasunari buruzkoak.

Bosgarrenean Leninen klasiko bat jorratzen da, *Estatua eta iraultza*, botere komunistaren teoria eta haren garapenaren askotariko faseak identifikatzeko helburuz: proletalgora Alderdi Komunistan eratzen denetik hasi, botere sobietarraren garapena eta proletalgoaren diktadura ondoren eta klaseak abolitu diren gizarte komunista azkenik. Garrantzitsua da aipatzea komunistak ez garela burrunbatsuak gure hitzetan eta ez dugula haien benetako esanahia eufemismoekin ezkututzen: proletalgoaren diktaduraren kontzeptuak, benetan diktadura iragankor gisa ulertuta, hemen eta orain politika proletario independente batean pentsatzeko aukera ematen digu. Diktadurarik gabe, ezin da politikan pentsatu. Marxismoaurreko garaietara atzera egitea bezala litzateke hori, non gizarte berri bat aldarrikatzeko arrazoi edo filantropismo abstraktu bati egiten zitzaion erreferentzia, edo non gizarte hori proletariotzaren borroka ekonomikoaren bidez eraiki nahi zen, kooperatibak garatuz eta abar. Gaur egun sozialdemokratek erabiltzen duten "%99 gara" moduan ezagutzen dena da hori, proletariotzaren diktaduraren eta klase-politika independente baten ukazioa, alegia.

Leninek erantzuten zion gai nagusia honako hau zen: nola eraiki sozialismoa Errusian, nekazariak gehiengo nabarmena ziren herrialde batean, eta nola egin lan hori proletalgoaren zuzendaritzapean, kopuruz askoz ere gutxiago izanda? Hegemoniaren eta botere proletarioaren auziari krisi iraultzailearen testuinguruan emandako erantzunak dira, hain zuzen ere, proletariotzaren eta nekazalgoaren diktadura demokratikoa edo Politika Ekonomiko Berria

***Proletalgoaren diktaduraren kontzeptuak,
benetan diktadura iragankor gisa ulertuta,
hemen eta orain politika proletario independente
batean pentsatzeko aukera ematen digu.
Diktadurarik gabe, ezin da politikan pentsatu.
Marxismoaurreko garaietara atzera egitea bezala
litzateke hori, non gizarte berri bat aldarrikatzeko
arrazoi edo filantropismo abstraktu bati egiten
zitzaion erreferentzia, edo non gizarte hori
proletariotzaren borroka ekonomikoaren bidez
eraiki nahi zen, kooperatibak garatuz eta abar***

Azkenik, seigarren gaiak inperialismoari buruzko Leninen teoria jorratzen du, bai eta haren teoriaren potentzial politikoa Mundu Gerraren testuinguruan aldarrikatzearen garrantzia ere. Gaur egun, mamu hori gero eta nabarmenago datorkigu gogora. Kapital-bloke monopoliko handien arteko lehia, monopolioa botere politiko gisa, herrialde inperialistetan garatutako baldintza sozial eta politikoak herrialde periferikoetako proletarioei egindako espoliazioaren barruan... Elementu horiek guztiek aukera ematen digute gaur egun botere burgesaren antolaketa politikoari eta haren oinarri sozialari buruz pentsatzeko; aukera ematen digute proletalgoaren eraketari buruz pentsatzeko burgesiaren diktaduraren aurka borrokan ari den bloke antagoniko gisa.

Espero dugu zerbaki honek lagunduko duela Leninen pentsamendua eta haren obraren handitasuna pixka bat hobeto ulertzen. Lagungarria izan dadila Lenin militantea aldarrikatzeko, taktikaren maisu hori, zeina gai izan baitzen bizitzeko egokitu zitzaion testuinguruan komunismoa zer zen ulertzeko, eta zeinak beti izan behar zuen esanahia eman baitzion komunismoari: botere politikoa konkistatzeko borroka iraultzailea, lanaren emantzipazio ekonomikoa ahalbidetuko zuena. Hori da Marxengandik oinordetzan hartu zuen zeregin handia, eta hari leial izan zitzaion hil zen egunera arte. ●

KOLABORAZIOA

ESKUBIDE POLITIKOAK ETA IRAULTZA

Testua — **Nahia Santander**

Irudia — **Irenewckd**

1910ean, Leninek adierazi zuen boltxebismoak joera politiko gisa behin betiko forma 1905eko udaberrian hartu zuela. Bost urte geroago, sozialdemokrazia errusiarraren baitako zatiketa azaldu zuen bi joera politiko hauei erreparatuta: alde batetik, 1890eko hamarkadaren amaierako *ekonomizismoaren* eta *mentxebismoaren* arteko jarraitutasuna eta, bestetik, *boltxebismoaren* leialtasuna antzinako taktika *iskristarekin*, marxismo iraultzailearen programarekin. Askatasun politiko guztien alde eta tsarismoa behin betiko boteretik kentzearen alde borrokatzeko beharrari uko egin izanak kondenatu zituen mentxebikeak *oportunismoaren* eremura, burgesia liberalari atxikita egotera – eta posizio horri eutsi zioten 1917an ere–.

ESTATU TSARISTAREN AURKAKO BORROKA POLITIKOA ETA ESKUBIDE POLITIKOAK PROLETARIOTZAREN EZINBESTEKO BALDINTZA GISA

Leninen obran, batez ere lehen idatzie-tan, gai ohikoenetako bat Estatu errusiarraren eta botere politikoaren antolaketaren analisisa izan zen. Erregimen politiko errusiarra izendatzeko erabili zuen terminoa *autokrazia tsarista* izan zen; hau da, gobernu era bat zeinetan Estatuaren botere osoa pertsona bakar batek zeukan, tsarrak. Tsarrak, eta ez beste inork, zeukan legeak aldarrikatzeko eta legeak betearaziko zituzten funtzionarioak izendatzeko ahalmena; funtsean, herrialdeko politika orokorra erabakitzeke ahalmena.

Estatu forma horretan herriak ez zuen askatasunik. Ez zeukan *existentzia politikorik*: ez zeukan bileretan antolatzeke eskubiderik, ezin zituen arazo publikoak eztabaidatu, ezta iritzi publikoan edo Estatuan eragin ere bere elkarteen bitartez. Ezin zuen legeen promulgazioan parte hartu. Izan ere, ez zen existitzen Batzar Nazional bat zeinetara langileek eta nekazariak euren ordezkariak bidal zitzaizketen, eta zeinaren aurrean Gobernuak kontuak eman beharko zituen. Gainera, herriak ez zeukan Estatu-ko Administrazioaren osaera erabakitzeke aukerarik, ezin zuen funtzionarioen jarduera kontrolatu, ezta etengabeko bidegabekeriak salatuta ere.

Autokrazia tsarista boteretik kentzea izan zen sozialdemokrazia errusiarraren lehentasunezko helburua 1880ko hamarkadatik aurrera. Sozialdemokraten zeregina propaganda eta agitazio jardue- ra metodikoa zuzenduko zuen alderdi iraultzaile handi bat antolatzea izan behar zuen eta, horretarako, bortxakeria eta zapalkuntza adierazpen isolatu bakoitza tsarismoaren aurkako iraultzarekin lotu- ko zituen. Baina, 1890eko hamarkadaren amaieran, marxismo iraultzailearen printzipioei uko egiten zien joera bat indarra hartzen hasi zen sozialde- mokraziaren barnean, eta tendentzia horrek zalantzan jartzen zuen Estatuaren aurkako borroka politikoaren premia.


Joera horrek *ekonomizismoaren* forma hartu zuen. Ekonomizistek ez zuten uste tsarismoaren aurkako iraultza politikoak aukera asko zeukanik, eta iraultza ahalbidetuko zuten faktoreen alde borrokatzearen garrantzia ukatzen zuten. Argudiatzen zuten langile errusiarrak oraindik ez zeudela behar bezain prestatuak aldarrikapen politikoak planteatze- ko, ez zeukatela alderdi gisa antolatu ahal izate- ko behar besteko ezagutzarik eta eskarmenturik, eta autokrazia tsarista boteretik kentzeak ez ziela inolako onurarik ekarriko. Hortik ondorioztatzen zuten sozialdemokraten zeregina proletarioei ber- ren borroka ekonomikoan laguntzera mugatu behar zela, eta burgesiaren sektore erradikalei utzi behar zitzaiela Gobernu tsaristaren aurkako jarduera poli- tikoa zuzentzen.

Leninentzat guztiz okerra zen pentsatzea lan- gileen interes bakarrak soldatarekin lotutako kon- tuak zirela; horrela izatekotan, alderdi proletario handi bat antolatzeko lana alferrikakoa izango litzateke. Marxismoaren desbideratze larria zen defendatzea sozialdemokratek ez ziotela langi- leen mugimenduari buruan sartu behar tsarismoa boteretik kentzeko borrokatzearen premia. Aitzi- tik, klase-kontzientzia zuten langileek ezin zuten ahaztu hori zela Errusiako langile-klasearen lehen zeregina. tsarismoaren aurkako borroka burgesia liberala buru zuen *oposizio legalera* mugatzeak kon- denatzen zuen borroka hori bera alde aurretik in- potentziara. Eraginkorra izateko baldintza ez zen proletarioek burgesia liberalari laguntzea, baizik eta *alderdi politiko independente* batean antolatzea. Hori eginda baino ezin izango zuten saihestu libe- ralismoa tsarismoarekin adiskidetzeko alde aurre- ko joerari lotuta geratzeko arriskua.

Autokrazia tsarista boteretik kentzea izan zen sozialdemokrazia errusiarraren lehentasunezko helburua 1880ko hamarkadatik aurrera

Tsarismoaren baldintza politikoek ezinezko egi- ten zuten Europako herrialde batzuetako langile- -alderdiaren eredia bete-betea aplikatzea, baina, hala ere, Leninek ez zuen zalantzan jarri sozialde- mokrazia iraultzailearen ideala, eta ez zuen propo- satu inolako *eredu berriko alderdirik*. Harentzat al- derdiaren misioa zen masak prestatzea gorabehera publikoetan eta gizartearen antolaketa politikoan parte hartzeko gai izan zitezten, Gobernu erora- razi eta euren Gobernu ezartzeko helburua izan- go zuen iraultza egin zezaten. Alderdiak politikoki hezi egin behar zituen masak, gertaera bakoitzaren aurrean posizio independentea erakutsiz, eta bide- gabekeria eta abusu adierazpen guztien aurrean erreakzionatuz, bere uste sendo sozialistak eta al- darrikapen demokratikoak denen aurrean azalduz.

Horregatik, alderdiaren eremuak *bizitza publi- koarena* izan behar zuen. Egoera jakin batzuetan beharrezkoa izan zitekeen erakunde politiko era- bat isilpeko bat, baina lehenago edo beranduago mekanismoak asmatu beharko zituen jendaurrean bere ikuspuntuak adierazteko eta gizartean politi- koki esku hartzeko. Hori izan zen *Iskrak* bete zuen helburuetako bat: *tribuna* bat sortzea, mezu sozial- demokrata entzuteko gero eta gertuago zeuden lan- gileei hitz egiteko.





Baina alderdi sozialdemokrata alderdi guztien kontrako eta Estatuaren aurka posizionatuko zen benetako oposizio bateraezin bihurtu ahal izateko, ezinbestekoa zen politika propioa garatu ahal izateko eta politika hori inposatzeko beharrezko baldintzak eskuratzea: eskubide politikoak. Eskubide politikoak hil edo bizikoak dira proletariotzarentzat, horiek gabe ez baitauka bere existentzia politikoa bermatua. Eskubiderik ez izateak edo euren garrantzia minimizatzeak ezintasunean uzten du, klase ertaineko alderdi erradikalaren luzakin hutsa besterik ezin da izan. Eskubide politikoek posible egingen dute politika propioa hedatzea eta gorabehera publikoetan eragitea; tokiko eskala gainditzea eta masak elkarrekiko komunikazioan jartzea ahalbidetzen dute. Oinarrizkoak dira proletariotzak bere borroka politikoa Estatuaren aurka bideratu ahal izateko.

Leninek idatzitako edo hark eragindako sozialdemokrazia errusiarraren programa politiko guztiek antolakuntza politiko eta ekonomikorako beharrezkoak diren eskubide politikoaren aldarrikapena jasotzen dute –biltzeko, elkartzeko eta grebarako askatasuna–, baita ideia sozialdemokrata era argian adieraztea ahalbidetzen dutenena ere –prentsa askatasuna–, edota langile klasearen ordezkariei tribuna bat eman eta haien interesen hedapen zabala laguntzen zutenena –sufragio unibertsala–.

Alderdiaren misioa zen masak prestatzea gorabehera publikoetan eta gizartearen antolaketa politikoan parte hartzeko gai izan zitezten, Gobernua erorarazi eta euren Gobernua ezartzeko helburua izango zuen iraultza egin zezaten

TSARISMOA ERABAT ERAITSI ETA ASKATASUN POLITIKOA EZARTZEA

Leninek defendatu zuen eskubide politikoak garatzearen aldeko borroka eta Estatuaren izaera antidemokratikoaren aurkako borroka ezin zirela banatu. Eskubide politikoek lotura banaezina zuten askatasun politikoarekin, sistema politiko osoan aldaketa erradikalak bultzatzeko beharrek. Sozialdemokratak tsarismoari kontzesioak kentzeko borrokatu behar ziren, eta kontzesio horiek borrokan zuten posizioa hobetzeko erabili, baina beti kontuan hartuta ezen, herriak boteretik kendu ezin zuen Gobernu batek zirauen bitartean, eskubide horien eraginkortasuna Gobernuaren borondatearen menpe egongo zela.

Askatasun politiko osoa lortzeko bide bakarra, beraz, boteretik baztertuak izan ziren herri-masek iraultza egitea zen; hau da, zegoen ordena politikoa eraistea eta beste bat eratzea. Iraultzaren helburua da esplotatutako gehiengoak ordura arte aurreko Gobernuaren eskuetan zegoen botere guztiak bere eskuetan hartzea, ez harekin botere banaketa bat adostea. Iraultza ez da transakzio bat.

Horregatik, iraultza amaieraraino eramateko, beharrezkoa zen, ordura arteko Gobernu boteretik kentzearekin batera, botere eta aginte gune berri bat ezartzea, gehiengo pobreak ekintza publikoko tresna guztiak bere eskuetan eduki zitzaizkien. Bestela, ez zen prestatuta egongo *prozesu konstituziogile* bat martxan jartzeko, botere politikoa antolatzekeko modu demokratiko berri bat eratzeke.


Langile eta nekazari masen Gobernu alternatibo horri *behin-behineko Gobernu iraultzailea* deitu zioten 1905eko iraultzan; baina argi dago 1917ko proletarioen eta nekazarien sobieten zereginekin jarraitu zuela. Gehiengo pobreak boterearen helburua *gutxienekoen programari* ekitea zen; hau da, gutxiengo esplotatzailearen boterea babesten zuen estatu-makina suntsitzeko beharrezkoak ziren eraldaketa politikoak eta ekonomikoak egitea, eta boterea gehiengo esplotatuaren esku behin betiko jarriko zuen antolamendu politikorako modu bat ezartzea.


***Askatasun politiko
osoa lortzeko bide
bakarra, beraz,
boteretik baztertuak
izan ziren herri-masek
iraultza egitea zen;
hau da, zegoen ordena
politikoa eraistea eta
beste bat eratzea***

Kontrara, mentxebikeek 1905eko iraultzan ukatu egin zuten tsarismoa boteretik kentzea lortuz gero, sozialdemokraziak behin-behineko Gobernu iraultzailean parte hartu behar zuenik. Haien ikuspuntua ekonomizismoaren hedapen bat zen, ez baitziren gai ulertzeko proletariotzak iraultzan zeukan interes politikoa, bere interes ekonomikoen asetze zuzenaz haratago. Gobernuan parte hartzeak sozialdemokrazia klase izaera alde batera uztea eramango zuela argudiatzen zuten, Gobernu horrek oraindik ezin izango zuelako programa maximoa –eraldaketa sozialista– berehalako bete. Arrisku hori saihesteko, sozialdemokraziak hortik kanpo kokatu behar zuten, eta presioa egitera mugatu.

Leninek mentxebikeei leporatu zien ez zirela gai ikusteko iraultzaren amaiera proletariotza sozialdemokratak betetzen zuen rolaren arabera izango zela: albo batean gelditu eta iraultza zuzentzearen zeregina burgesiari ematen ote zion, mentxebikeek proposatzen zuten bezala, edo, kontrara, iraultzaren gidaritzaren bere gain hartzen ote zuten, boltxebikeek defendatzen zuten bezala. Behin-behineko Gobernu batek promulgatuak izan ezean, tsarraren Gobernuak ezar lezakeen edozein neurri demokratikok, izan Batzar Konstituziogile batek, izan Parlamentu bat sortzeak, edo izan zenbait eskubide politiko aldarrikatzeak, klase ezberdinen arteko botere-banaketa negoziatzea besterik ez luke ekarriko.

*Iraultzaren helburua da
esplotatutako gehiengoak ordura
arte aurreko Gobernuaren eskuetan
zegoen botere guztiak bere eskuetan
hartzea, ez harekin botere
banaketa bat adostea*







Erabateko askatasun politikoaren berme bakarrazen proletarioek botere organoak deuseztatzea baldin eta ez baziren herriak hautatuak, ezeztaezinak eta herriaren guztiz menpekoak

Egia esan, hori zen burgesia liberalak 1905ean lortu nahi zuen helburua: uko egiten zion tsarismoarekin amaitzeari eta botere osoa herriaren eskuetan jartzeari. Proposatzen zuen tsarismoa erreformatzea *konstituzioaren* bidea erabilia; hortaz, haren lege proposamen guztiek onartzen zuten herriarena ez zen kanpoko botere baten existentzia. Tsarraren, goi-ganbera baten eta behe-ganbera baten arteko botere-banaketa adostera mugatzen ziren. Mentxebikeak belaunikatu egin ziren burgesiaren promesen aurrean: lehenik, iraultzaren garaipena tsarismoarekin bateragarria zen eta behin-behineko Gobernu iraultzaile baten emaitza ez zen Batzar Konstituziogile bat eratzeke deialdiarekin parekatuz, eta, ondoren, alderdiaren jarduera erregimenaren barrutik oposizioan jardutera mugatu nahian. Parlamenturik ez bazuten ere, *ergelkeria parlamentarioa* zeukaten: etorkizuneko Duma eratzeke deialdia egiteko lege proposamenen aurrean posizio kritikoa erakutsi zuten arren, ez ziren gai izan iraultza aurrera bultzatzeko eta Gobernu kontzesio handiagoak egitera behartzeko boikot aktiboa antolatzeke.

Hala ere, bazitekeen behin-behineko Gobernu bat ezartzeak ez sortzea erregimen erabat demokratiko bat, proletariotzak burgesiari gailentzeko nahikoa indar lortzen ez bazuen. Bilakaera hori izaten ari zen mentxebikeek sostengatu zuten 1917ko Behin-behineko Gobernu, harik eta boltxebikeek gobernu hori eraitsi eta boterea hartu zuten arte. Gobernu horretan, burgesiak aurreko erregimen politikoaren erakundeetan oinarritzeko erabakia hartua zuen, armada iraunkorren edo burokrasian, adibidez. Komenigarriagoa zitzaion aldaketa demokratikoak motelago gerta zitezen, modu ez hain deliberatuan. Leninek beti salatu zuen burgesia ez zela gai erabateko askatasunaren alde borrokatzeke, traizio egingo ziola bere ustez defendatzen zuen kausari, bazekielako proletariotzak erakunde berriak burgesia beraren aurkako arma bihurtzakeela.

Leninen arabera, erabateko askatasun politikoaren berme bakarrazen proletarioek botere organoak deuseztatzea baldin eta ez baziren herriak hautatuak, ezeztaezinak eta herriaren guztiz menpekoak. Horregatik, proletarioen eta nekazarien botere politikoa *errepublika benetan demokratiko* baten forman antolatu behar zen, azkenean 1917ko urrian sobieten errepublikarekin eratu zen bezala. Errepublika horrek Estatu modernoaren berezko botere-banaketaarekin amaituko zuen, eta batzar bakar batean bilduko zuen botere guztia; batzar horretako partaideak sufragio unibertsal, zuzen, berdin eta sekretuaren bitartez hautatutako ordezkariak edo delegatuak izango ziren, arduratsuak eta une oro ezeztagarriak. Estatuaren Administrazioa erabat demokratizatzea eta burokrasia kentzea bermatuko zuen, funtzionario publiko guztiak hautagarri eginez eta herriaren borondatearen mende jarriz. Herria zapaltzeko indar hertsagarri antolatuari amaiera emango zion –polizia eta armada iraunkorra– armez hornitutako herriak berak ordezkatzuz. Leninen hitzetan: “herriaren erabateko askatasuna ez da benetan ziurtatua egongo Estatuaren botere guztia erabat eta benetan herriaren eskuetan egon arte” (*Askatasunaren aldeko borroka eta boterearen aldeko borroka*, 1966). ●

KOLABORAZIOA

AUZI NAZIONALA LENINEN OBRRAN, AUZI POLITIKOA

Testua — **Dani Askunze**

Irudia — **Axier Nuñez & Iker Leon**

Marxismoaz eta auzi nazionalaz hitz egitea polemika luze baten inguruan hitz egitea da; hain zuzen, marxismoaren baitan ez dagoelako gaiari buruzko teoria orokorrik, oinarrizko printzipio etiko batzuetatik haratago. Bertan agertzen da Lenin, nazioaz bere horretan teorizatzeko asmo kontenplatzailerik gabe; nazio auzia nagusiki politikoa da bere obran eta gaiari ematen dion trataerak bere profil militanteari buruzko topikoa berresten du: estratega zen teorikoa baino lehen. Hortaz, kontua zen politikoki eta justiziaz heltzea nazio auziari, eta iraultza sozialistarako estrategiaren baitan duen lekua aurkitzea.

Afera hau *burgestzat* jo da behin eta berriro. Hain zuzen ere, nazioaren kontzeptu modernoak eta nazionalismoak historikoki harreman zuzena izan dute kapitalismoaren garapenarekin eta burgesia klase dominante bihurtzearekin. Dena den, nazio auziaren jarraikortasunak gogorarazi digu afera hau ez dela kapitalismo goiztiarreko garaietara eta iraultza burgesetara mugatzen. Izan ere, sistema kapitalista globalizatuak ez ditu nazioak erabat desegiten –eraldatzen badi-tu ere–, erreproduzitu egiten baititu, eta, horiekin batera, baita auzi nazionala ere. Auzi horrek zentzu partzialki ezberdina hartzen du feudalismotik kapitalismorako trantsizioan, kapitalismotik sozialismorakoan, eta sozialismotik komunismorakoan.

Hain justu, nazioa gizarte burgesari dagokion gertakari historikoa da, berarekin batera jaio zena eta hilko dena. Eta burgesia klase dominantea den heinean, nazioaren gaineko hegemonia ere burgesa da. Nolanahi ere, nazioa poliklasista da konposizioz, bi klase handirekin, burgesia eta proletariotza; eta interklasista da edukiz, komunitate nazionalarekin. Baina komunitate hori ez da iruzurrezko plano ideologiko batean soilik garatzen, hori garrantzitsua bada ere; aitzitik, erabat erreala da, oinarri objektibo baten gainean eraikia: *egitate nazionala* da.



Ez da proletariotzari edota burgesiari soilik eragiten dion auzi bat, biei eragiten diena baizik. Eta problematika interklasista bat den heinean, beharrezkoa da erantzun proletario bat artikulatzea, dominantea den burgesiarenetik bereizia eta azken horren eragina neutralizatuko duena

Horretan datza hain justu bere konplexutasun politikoa. Ez da proletariotzari edota burgesiari soilik eragiten dion auzi bat, biei eragiten diena baizik. Eta problematika interklasista bat den heinean, beharrezkoa da erantzun proletario bat artikulatzea, dominantea den burgesiarenetik bereizia eta azken horren eragina neutralizatuko duena. Erantzuna bereziki beharrezkoa da, nazioaz oro har ez ezik, nazioaren zapalkuntzaz bereziki hitz egiten dugunean. Hori kezka garrantzitsua izan zen Leninentzat, *errusiar handia* zen aldetik, bazekielako *beste herri bat zapaltzen duen herria ezin daitetekeela aske izan*. Aldi berean, proletariotza iraultzailearen batasun estrategiko eta organizatiboa eraikitzeko konpromisoa zuen, hark duen disolbatzeko joeraren aurka, Errusiar Inperioa bezalako testuinguru konplexu batean.

Beraz, zapalkuntza nazionalari eta nazionalismoari aurre egitea eta proletarioen klasearen batasunaren alde lan egitea izango ziren auzi honen inguruko politika leninista gidatuko zuten oinarriak. Abstrakzio hutsean kokatuz urrun, konkretura eramango zuten auzi hau, programara, eta maila horretan eztabaidatu zuten bai eremu sozialistan eta baita boltxebikean ere, izan Kautskyrekin, Pilsudskirekin, Luxemburgekin, Bauerrekin, bundistekin, Trotskirekin, Bukharinekin edota Stalinekin.

AUZI PROGRAMATIKOA ETA ORGANIZATIBOA

Nazioarteko sozialdemokraziaren baitan, nazioen autodeterminazioa aldarri erretoriko eta abstraktu moduan planteatzen zen batez ere, adostasun erreal mugatua izanik eta eta operatibitate praktikoa are txikiagoarekin. Egoera hori iraultzen saiatu ziren Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokrataren 1903ko II. Biltzarrean –boltxebikeen eta mentxebikeen banaketagatik ezaguna–, programa bat osatuz, Leninen parte hartzearekin. Programa horretan^[1] “ordena aurrekapitalistaren hondakin ugariak” nabarmentzen ziren, besteren artean, “proletarioen klase borrokaren garapena galarazten dutenak”, autokrazia zarista izanik “hondakin horien artean garrantzitsuena”. Testuinguru horretan, helburu behinena tsarismoa garaitzea eta bere ordezkari errepublika demokratiko bat ezartzea zen. Bertan, programako bederatzigarren puntua zen “Estatuaren lurraldean dauden nazio guztien autodeterminazio eskubidea”. Horrez gain, zortzigarrenak hizkuntza eskubide berdintasunari egiten zion erreferentzia, bai maila sozialean, bai hezkuntza mailan eta baita administrazio mailan ere. Modu horretan agertzen da autodeterminazio eskubidea, minimoen programan jasotzen den aldarri demokratiko gisa eta, hortaz, berehalako helburu moduan.

Erantzunak segituan iritsi ziren. Biltzarrean bertan, Pilsudskiren Poloniako Alderdi Sozialistako kideek alde egin zuten autodeterminazioari zegokion puntua ez zutelako onartzen, Poloniaren independentzia baldintzarik gabe eta posizio nazionalistetatik defendatzen zuten heinean. Bestalde, Bund-ak –Langile Judutarren Batasun Nagusiak– ere alde egin zuen, ez zuelako zentralismoaren printzipioa onartzen eta ez zituztelako proletariotza judua ordezkatzeko antolakunde bakartzat aitortzen.

Leninek horrela erantzun zien poloniarrei, gerora ere hainbatetan egin bezala, autodeterminazio nazionalaren baldintzazkotasunaz eta proletariotzaren batasunarekin eta autodeterminazioarekin duen harremanaz: “determinazio askearen aldeko borroka baldintzarik gabe aitortzeak ez gaitu inola ere autodeterminazio nazionalako edozein eskari babestera behartzen. Sozialdemokraziak, proletarioen alderdi gisa, nazio bakoitzeko proletarioen autodeterminazioari laguntzeko zeregin positiboa eta funtsezkoa planteatzen du, eta ez herri eta nazioen autodeterminazioari oro har laguntzekoa. Guk, beti eta baldintzarik gabe, nazio guztietako proletarioen arteko batasun ahalik eta estuena lortzeko joera izan behar dugu, eta kasu bakanetan eta salbuespen gisa bakarrik aurkez eta babes ditzakegu estatu berri bat eratzekeo aldarrikapenak”^[2]. Era berean, bundistek euren separatismoa eta alderdien federazio batek lekarkeen batasun eza aurpegiatu zien eta horien aurrean honako hau defendatu zuen: “zentralismo demokratikoaren beharra, autokraziak zapalduko edozein herritako proletarioen borrokaren garaipena bermatzeko eta autokrazia horren zein gero eta batasun handiagoa duen nazioarteko burgesiaren aurka egiteko”. Egoera hori izanik, 1903an jada posizio argia zuen Leninek: nazioen autodeterminazio eskubidea defendatzea, ez banantzeari baldintzarik gabeko babesa defendatzea. Era berean, nazio zapaltzaileko eta zapalduko proletarioen batasuna, zentralismoaren printzipiopean.

DEMOKRAZIA BITARTEKO ETA HELBURU GISA

Hurrengo urteetan, eztabaidarako ekarpen berriak agertuko dira eta, gerra inperialistara eramango duten gertakari historikoekin batera, ekarpen horiek eztabaidaren fase berri bat irekiko dute. Berriro ere, eztabaida hauetan posizio leninistak azalduko dira.


Austromarxisten eta bundisten aurrean, Lenin kritikoa izango da “kultura nazional” kontzeptuarekin, klase dominantearen kultura ordezkatzeko baitu ezinbestean. Kontrara, “demokraziaren eta mundu mailako langile mugimenduaren nazioarteko kultura” izango da bere kontsigna, zeinak kultura nazional bakoitzetik “bere elementu demokratiakoak eta sozialistak” soilik hartuko dituen, “kultura burgesarekiko eta nazio bakoitzeko nazionalismo burgesarekiko kontrakotasunean”^[3]. Hortaz, marxismoa eta nazionalismoa bateraezinak izango dira.

Sozialdemokraziak, proletarioen alderdi gisa, nazio bakoitzeko proletarioen autodeterminazioari laguntzeko zeregin positiboa eta funtsezkoa planteatzen du, eta ez herri eta nazioen autodeterminazioari oro har laguntzekoa



Beste muturrean kokatuko dira Rosa Luxemburg eta bere aldekoak, posizio internazionalistak baina autodeterminazio eskubidearen aurkakoak defendatuz. Leninek frogatuko du nola, Europako muga errealitate aldakorrarekin, gezurtatuta geratzen den berari akusatzen zioten utopismoa. Bestalde, planteamendu horrek zapalkuntza nazionalarekin duen lotura salatuko du, nazioei in-
dependentsia politikoa ukatzen baitie, kapitalismoaren baitan euren independentsia ekonomikoa ezinezkoa dela arrazoituz eta, modu horretara, biak nahasiz^[4].

Autodeterminazioa eta gainerako aldarrikapen politiko-demokratikoak –abstraktuki, behintzat, *burgesak* direnak– gauzaezinak izateari dagokionez, Leninek naturaltasunez aitortzen du berehalakoan soilik modu bukatugabea gauza daitezkeela. Horretan datza, hain zuzen, haien interesa, ezinbestekoa baita “eskaera hauek modu iraultzaile batean adierazi eta praktikara eramatea, ez modu erreformistan”^[5]. Hala, batetik, autodeterminazioaren aldarriak funtzio pedagogiko bat betetzen du, proletarioak elkarrekin modu solidarioan batzeko –hau da, nazio zapaltzailetik modu askean bereiztea eta nazio zapalduaren barnean modu askean batzea–. Baina, batez ere, funtzio iraultzaile bat beteko du, eskaera demokratikoaren defentsa botere burgesaren oinarrien kontra bideratzekoa. Adimen iraultzaile hori Leninen ekarpen onenetakoa izango da, ageri diren kontraesanak azken helburuarekin lotzeko zuen gaitasun bereizgarri horren bidez. Zentzu horretan, baieztatuko du “iraultza sozial purua espero duenak ez duela sekula halakorik ikusiko”^[6].



1903an jada posizio argia zuen Leninek: nazioen autodeterminazio eskubidea defendatzea, ez banantzeari baldintzarik gabeko babesa defendatzea. Era berean, nazio zapaltzaileko eta zapalduko proletarioen batasuna, zentralismoaren printzipiopean

(...) nazio zapaltzailearen internazionalismoa ezin da mugatu ezerezean geratuko zen berdintasun formal batean gotortzera, baizik eta benetako desberdintasun hori aktiboki konpondu behar du, nazio zapalduak arreta handiz tratatuz, proletarioen arteko konfiantza berreskuratu dadin

SOZIALISMOAREN ERAIKUNTZA ETA HEDAPENA

Boltxebikeek boterea hartzean izan zituzten erroka eta zailtasun guztien artean, nazio auzia ere egon zen. Zentzu horretan, nazioen autodeterminazio eskubidea puntu programatikoko bat izateaz gain, sobietar botere berriaren oinarrietako bat ere izan zen^[7] eta berehala jarri zen praktikan. Garai hartan sortu ziren problematika praktikoko konplexuei erreparatu gabe, berriro ere eztabaida sortu zuten bi puntu ikusiko ditugu. Mundu mailako iraultza proletarioaren beharretatik abiatuta egin zien aurre biei Leninek, sobietar botere berria berehalako hedapen betean baitzegoen oraindik.

Lehenik eta behin, berriro ere eztabaidagai jarri zen ea autodeterminazio eskubideak nazioei egin behar zien erreferentzia -burgesia barne hartuta-, edota soilik langileei. Leninek Bukharinen aurrean ironiaz aipatu zuen langile klasearen autodeterminazio eskubidea aitortzeak esan nahi zuela “Errusian izan ezik beste inongo herrialdeetan lortu ez dena aitortzea”^[8]. Hau da, langileek boterea hartu ez zuten lekuetan ez zuela zentzurik eta hain zuzen ere horregatik zentzua zuela autodeterminazio nazionala aldarrikatzen jarraitzeak, nazionalismoa neutralizatzeko eta nazio bakoitzeko burgesiaren eta proletariotzaren arteko *desberdintzea* eta polarizazioa errazteko. Hots, nazioen autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea langileen autodeterminazioa aldarrikatzeko aurretiazko eta ezinbesteko urrats bat zela, azken hori herrialde bakoitzean garapen maila oso ezberdinak dituen prozesu konplexu bat baita eta ezin baita dekretatu. Bestela, “programa bat baino gehiago proklama bat izango da”, hain justu programaren funtzioa eta erabilgarritasuna “errealitatea zehaztasun osoz islatzea” denean Leninentzat.

Mendebaldean boterea azkar hartzeko aukerak epe luzerako ixten ari zirela zirudienez, hedapen iraultzailerako aukerak ekialdera zabaldu ziren. Testuinguru honetan gertatu zen boltxebikeen arteko bigarren eztabaida, Georgiako Alderdi Komunistak Transkaukasiako Sobietar Errepublika Federatibo Sozialista bakar batean disolbatzeari uko egin zionean. Gaixotu aurretik bidalitako azken gutunean^[9] ikus daitekeenez, Leninek Dzerzhinskiri eta Stalini aurre egin zien, sozialismoa eraikitzeko prozesuan modu arriskutsuan erreproduzitzen jarraitzen zen nazio zapalkuntzari aurre egiteak zeukan garrantzia azpimarratuz eta ohartaraziz nazio zapaltzailearen internazionalismoa ezin zela mugatu ezerezean geratuko zen berdintasun formal batean gotortzera, baizik eta benetako desberdintasun hori aktiboki konpondu behar zuela, nazio zapalduak arreta handiz tratatuz, proletarioen arteko konfiantza berreskuratu zedin. Gainera, Alderdiaren izen onaren babespean eta sortu berri zen SESB batetik egiten zuen hori, zeina oraindik ere errepublika berriak batzeko irekia zegoen eta, proletarioen aberri modura, ezin zuen bere burua jarrera zapaltzaileek zikintzea onartu. Hori guztia nazioarteko klabearen pentsatuz eta Internazional Komunistaren fokua ekialdeko herriek inperialismoaren aurkako borroka irabaztean ezarrita zegoenean, mundu mailako iraultza lortzera bidean.



(...) nihilismo nazionalaren aurrean, nazionalismoa neutralizatzea eta nazio auzia sistemaren krisi politikoan sakontzeko faktore objektibo gisa hartzea defendatu zuen, proletarioek iraultza sozialistaren alde egiteko behar bezala aprobetxatu behar dutena

GAKO POLITIKOAK

Bere lan teoriko eta praktikoen bidez, Leninek zenbait gako utzi zizkigun nazio auziaz zuen ikuskeraren inguruan:

Ideologikoki, nazio zapalkuntza tinko borrokatzeko kezka berezi bat adierazi zuen, eta, txanponaren beste aldea, proletariotzaren independentzia politikoaren defentsa, nazionalismo ororen aurka. Estrategikoki, nazioen arteko berdintasuna eta langileen arteko konfidantza premisa bezala ezartzea defendatu zuen, proletariotza nazioarteko klase moduan batzeko. Organizatiboki, zentralismoaren printzipioaren baitan gauzatzen den proletarioen batasuna aldarrikatu zuen. Eta, taktikoki, bere garrantzia ukatzen duen edo distraktore huts gisa ikusten duen nihilismo nazionalaren aurrean, nazionalismoa neutralizatzea eta nazio auzia sistemaren krisi politikoan sakontzeko faktore objektibo gisa hartzea defendatu zuen, proletarioek iraultza sozialistaren alde egiteko behar bezala aprobetxatu behar dutena.

Hori guztia nazioen autodeterminazio eskubi-dearen aldarri leninista ospetsuan laburtzen da. Hain justu, azaldutakoaren haritik, horrek modu honetan hartu behar du zentzua: 1) programa komunistara azpiratutako aldarri demokratikoa; 2) banantzeko eskubidea baldintzarik gabe aitortzen duen aldarrikapen negatiboa, baina eskubide hori klase borrokaren behar orokorren arabera erabiltzea eskatzen duena, eta 3) nazioen arteko berdintasuna lortzeko ezinbestekoa den faktorea, oinarri internazionalisten gainean proletariotzaren batasun positiboa eratzen lagunduko duena eta helburu izango duena *nazioak fusionatzen dituen unitate nagusi bat* sortzea, gizarte komunista batek egina. ●





BIBLIOGRAFIA

[1] (1903) *Programa del POSDR (adoptado por el II Congreso del Partido).*

[2] Lenin, V.I. (1903). *El problema nacional en nuestro programa.* Lan hautatuak, II. liburukia (1902-1905).

[3] Lenin, V.I. (1913). *Notas críticas sobre la cuestión nacional.*

[4] Lenin, V. I. (1914). *El derecho de las naciones a la autodeterminación.*

[5] Lenin, V.I. (1916). *La revolución socialista y el derecho de las naciones a la autodeterminación.*

[6] Lenin, V.I. (1916). *Balance de la discusión sobre la autodeterminación.* Lan hautatuak, VI. liburukia (1916-1917).

[7] (1917) *Declaración de Derechos de los Pueblos de Rusia.*

[8] (1919) *VIII Congreso del Partido Comunista de Rusia (bolchevique).*

[9] Lenin, V.I. (1922). *Contribución al problema de las naciones o sobre la autonomización.* Lan hautatuak, XII. liburukia (1912-1923).

HEGEMO- NIAREN AGERTOKIA

1984an idatzitako paragrafo zirraragarri batean, handik aurrera bere bizitza gidatuko zuen eskema politikoa zirriborratu zuen Leninek. Hau esaten zuen: “Abangoardiaren haren ordezkariak sozialismo zientifikoaren ideiak barneratzen dituztenean, langile errusiarren rol historikoaren ideia barneratzen dutenean, eta ideia horiek luze eta zabal hedatu eta langileen artean antolakunde sendoak sortzen direnean, zeinek langileen gaur eguneko gerra ekonomiko noizbehinkakoa klase borroka kontziente bihurtuko duten, une horretan, langile errusiarra elementu demokratiko guztien buru jarriko da, absolutismoa eraitsiko du eta Errusiako proletariotza (herrialde guztietako proletariotza ondoan duela), borroka politiko irekiaren bidetik, iraultza komunista garailera gidatuko du”^[1].

Aurreko hamarkadetan, Errusiako intelektualtasun erradikalak sekulako buru-haustea izan zituen autokrazia tsarista gorrotatua eraisteko gai izango zen estrategia baten bila; izan ere, autokrazia horrek Europako erregimenik despotiko eta basatienera bilakatzen zuen Errusia. 1789 eta 1848tik zetozen haizeek gogor jotzen zuten.

Teoriak eta populismoaren praktikak markatu zituzten hasierako urrats haiek; populismoa, hain zuzen ere, hiru premisa hauen gainean eraikitako doktrina berezia da: 1) Errusia artean ez zen herrialde kapitalista, baizik eta feudala, nekazaritza nagusiki komunitarioak eutsia. 2) Oinarrian zegoen ekoizpen komunitario hori ekonomia sozialista berri baten zimendu izan zitekeen, eta horrek Errusia libratuko zuen garapen kapitalistaren esperientzia bihurtu zuten, betiere nekazariak –herrialdeko

klase nagusia– beren kateak apurtu eta autokrazia tsarista suntsitzen bazuten. 3) Intelektualek nekazari ezjakinak gidatu behar zituzten prozesu horretan, eta, horretarako, haien kontzientziak goratu behar zituzten, besteak beste, erregimenaren ordezkari gorrotatuen aurkako eraso terroristak eginez.

Leninek gertu-gertutik bizi izan zituen doktrina populistaren mugak; haren anaia bera exekutatu egin zuten tsarraren aurka porrot egin zuen atentatu batean parte hartzeagatik. Vladimir Ilitx gazteak muga horiek gainditzeko egin zuen bat marxismoarekin, emantzipazioaren aldeko borroka oinarri sendoago baten gainean eraikitze aldera. Gorago zirriborratu den emantzipazioaren narratiba, hain zuzen ere, marxismoak eskaintzen zuen hori zen, une hartan Europa osoan garatzen ari ziren alderdi sozialista handietan gorpuzten zena.

“Hegemonia”, labur esateko, gidaritzza politiko eta morala gauzatzeko gaitasuna da. Lenini interesatzen zaion gidaritzza mota klase gidaritzza da, hau da, proletariotzak duen gaitasuna autokraziaren aurkako borrokan garaipena lortzeko prozesuan nekazariak gidatzeko

Bere planteamendua funtsatzerakoan, sistematikoa izan zen Lenin^[2]. Lehenik eta behin, kartuki ikasitako teoria eta politika marxista modu kementsuan defendatu zituen, eta Errusiaren testuinguruan balioa zutela erakutsi zuen^[3]. Politika proletario batez ordeztu behar zen abenturazalekeria terrorista; gutxiengo konspiratzaileak benetako alderdi batez; nekazarien idealizazioa proletariotzaren antolakuntzaz; landa-eremuko sozialismo baten ametsak demokraziaren aldeko borroka iraultzaileaz. Bost urte geroago, zehaztasun osoz frogatu zuen Errusia ordurako herrialde kapitalista bat zela; horrek bertan behera uzten zituen populismoaren ilusio utopikoak^[4]. *Zer egin?* lanean, alderdi proletario baten beharra justifikatu zuen, eta plan bat proposatu artean sakabanatuta zegoen Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrata langile klasearen benetako alderdi iraultzaile bilakatzeko. Bidean, Errusia atzeraturako bidegarria zen estrategia iraultzaile bat prestatzeko lanetan parte hartu zuen. Handik gutxira, Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrata banatu egin zen estrategia horren aldekoetan (boltxebikeak) eta kontrakoetan (mentxebikeak), eta banaketa horrek errepikatu egiten zuen sozialdemokraziaren nazioarteko banaketa: hegal marxista iraultzailea eta hegal oportunistak.

Joan gaitezen urratsez urrats. Populismotik marxismora igarotzeko, beharrezkoa zen nekazarien ordez proletarioak kokatzea prozesu iraultzailearen eragile zentral gisa. Alabaina, horrek ezin zuen funtsezkoa zen alderdi hau ezkutatu: Errusiako biztanleen gehienak, alde handiz, nekazariak ziren. Gainera, gehiengo esplotatu eta zapaldua zen, lurjabe klaseak azpiratua, zeinak Estatu tsarista zuen bere menderakuntzaren bermatzaile nagusi. Sinpleki esateko, nekazaririk gabe, ezinezkoa zen iraultza, edo ez behintzat hamarkada ugari igaro arte^[5]. Hain zuzen ere hegemoniaren kontzeptua hor sartzen da aurrean dugun agertoki horretan.

“Hegemonia”, labur esateko, gidaritzza politiko eta morala gauzatzeko gaitasuna da. Lenini interesatzen zaion gidaritzza mota klase gidaritzza da, hau da, proletariotzak duen gaitasuna autokraziaren aurkako borrokan garaipena lortzeko prozesuan nekazariak gidatzeko.

Marxismoaren bitartez, proletariotzan *abangoardia* klase bat ikusten ikasi zuen Leninek, bai eta abangoardia horrek antolakuntza politiko eta sozialerako ohiz kanpoko gaitasun historikoak zituela ere. Klase menderakuntzaren antagonista objektiboa izanik –jabetza oro ukatu baitzaio–, proletariotza zen bere menderakuntza gainditzeko borroka gidatu zezakeen klase bakarra. Komunistek lortzen bazuten proletariotzak bere zeregin historikoaren kontzientzia hartzea, geldieztina izango zen haien indarra, eta horrek prozesu bat irekiko zuen, nekazariak arrastatuko zituen, tsarismoa suntsitu, eta, hala, klase gizartearen behin betiko suntsipenari atea zabaltzeko.

Premisa horietatik abiatuta, Leninek oinarrizko eskema bat diseinatu zuen: alderdiak proletariotza gidatuko du, eta hark herri osoa gidatuko du tsarismoaren aurkako borrokan; izan ere, tsarismoaren suntsipenak proletariotzaren borroka beste fase batera eramateko oinarriak ezarriko ditu^[6]. Proletariotzaren rola, bere alderdia buru duelarik, zapaldu eta esplotatu guztiak bere gidaritzza inspiratzailearen pean batzea eta tsarismoa suntsitzea da, gizarte sozialista bat eraikitzeko tarteko pauso gisa.





Alderdiak proletariotza gidatuko du, eta hark herri osoa gidatuko du tsarismoaren aurkako borrokan; izan ere, tsarismoaren suntsipenak proletariotzaren borroka beste fase batera eramateko oinarriak ezarriko ditu

Proletariotzari misio askatzaile handi hori kendu eta rol azpiratu eta estu batera mugatu nahi zuten horien kontrako adierazpen bat izan zen ekonomistekin izandako polemika. Leninen iritziz, proletariotzaren “klase ikuspegia” ezin zen identifikatu langile talde baten edo bestearen epe motzeko interes ekonomikoen gaineko ikuspegi doilor eta epe laburreko batekin^[7]. Kontrara, klase guztien arteko harremanak eta borroka gizartearen osotasunean ikusteko aukera da ikuspegi hori, kontziente izanik proletariotzaren emantzipazioa bat datorrela gizadi osoaren emantzipazioarekin. Errusiako testuinguruan, proletariotzaren klase ikuspegia ezartzen zuena ez zen sektore batzuen interes isolatuen aldeko borroka, baizik eta tsarismoaren tiraniaren aurkako guda orokorra, zapaldu guztien buru jarri-rik, haiek garaipenera gidatzeko.

Hori da, haren esanahirik oinarrizkoenean, Lars Lih autoreak “hegemoniaren agertoki” izendatu duena^[8]. Agertoki horretan gertatu zen lehen drama autokraziaren amaiera ekarri zuen iraultza demokratikoa izan zen. Iraultza horrek, bere alde-rik, parez pare ireki zizkion ateak sozialismoaren aldeko borrokari.

Boltxebikeen eta mentxebikeen arteko desberdintasunak orain arte aipatu diren puntu batzuen inguruan marrazten dira. Azken finean, dena ebazten da gidaritzaren, hau da, hegemoniaren auziaren bitartez; honako galdera honen inguruan mugitzen da dena: nork gidatuko du iraultza demokratikoa? Galdera horren azpian, prozesu iraultzaile sozialistaren osotasuna ulertzeko moduari eragiten dion dilema estrategiko sakon bat ezkututzen da. Berehalakoan, iraultza demokratikoa nork gidatu, hark izango du boterea iraultza burutu denean. Eta boterea noren esku egon, hark zehaztuko du iraultzak zer erregimen motari emango dion bide.

Hautua modu errazean planteatu daiteke: mentxebikeek burgesiari esleitzen zioten gidaritza rola; boltxebikeek, aldiz, proletariotzari. Eztabaida horrek lotura zuzena zuen nazioarteko sozialdemokrazia banatzen zuten barne antagonismoekin.

Sozialdemokraziaren hegal oportunistak burgesiari kredentzialak ematen jarraitzen zuten; oportunisten arabera, burgesia objektiboki gobernu autokratikoen kontra zegoen klase bat zen, eta boterea herriari emango zioten erregimenak eraikitzea helburu zuen. Haiek gaituko zuten, hainbat urte luzetako garapenaren ondoren, proletariotzaren garaipen baketsua. Arrazoiketa hori sinplea bezain iruzurtia da: burgesiak demokraziak eraikitzen badiu eta demokraziak herriak gobernatutako erregimenak badira, proletariotzak boterea konkistatu ahalko du garapen kapitalistak biztanleriaren gehiengo bihurtzen duenean. Hala, burgesia proletariotzaren aliatu *estrategikoa* da. Momentuz, proletariotza burgesiari subordinatuta egon behar da, haren bulkada demokratikoak babestu eta haren esku utzi autokrazia suntsituko duen prozesuaren gidaritza. Behin prozesu hori gauzatuta, gobernu burgesaren garai luze bat has liteke eta, garai horretan, proletariotza oposizioan egongo litzateke edo, bestela, gobernuaren buru den burgesiaren bazkide txiki izango litzateke, helburu izanik esku-bideak areagotzea eta ordena liberal-burgesa haren etsai erreakzionarioetatik babestea. Ziur irakurleari ezagun zaiola melodia hori: oportunistek 100 urte baino gehiago daramatzate hura kantatzen.





Hegal iraultzaileak ez zuten onartzen planteamendu hori. Haren iritziz, burgesiak inoiz kredentzial demokratikoak izan bazituen, aspaldi zen haiek galdu zituela. Historian, proletarioria jabetza iraultzera bideratutako klase independente gisa altxatu zen unean, burgesiak bertan behera utzi zuen gurari iraultzaile oro, existitzen ziren gobernuen besoetara salto egiteko. Une horretatik aurrera, proletarioria izan zen sendoki demokratikoa eta iraultzailea zen klase bakarra^[9]. Independentzia politiko huts-hutsetik bakarrik, estatuaren eta gainerako alderdi burgesen aurkako klase borrokaren taktika zaharretik bakarrik erdiets zitzakeen proletarioriaz bere helburuak. Noski, helbururik garrantzitsuena, erabakimen osoz bilatu behar zuen helburua, botere politikoa konkista zen; alegia, burgesiaren aurkako borroka gorena gizartearen gaineko gidaritza eskuratzeko.

Boltxebikeak, Lenin buru zutela, gai izan ziren azken ulermen esparru hori Errusiako testuingurura egokitzeko, non autokrazia oraindik suntsitu gabe zegoen eta, are, burgesia autokrazia horren defendatzaile onena eta fidelena izan zen. Mentxebikeek burgesia errusiar koldar eta ahulari entregatu nahi zioten iraultza demokratikoa gidaritza, nahiz eta burgesia oso eroso bizi tsarismoaren hegoaren babesean, zeinak jabetza eta ordena sutuki defendatzen zituen. Ondorioz, iraultzaren ondorenerako proiektatzen zuten agertokia errepublika burges baten eraikuntza zen, zeinetan proletarioriaz, definizioz, rol subordinatua izango zuen eta botere politikoa klase kapitalistaren esku geldituko zen. Horixe da mentxebikeen *etapismo* ospetsua, zeinak iraultza sozialista etorkizun urrun batera atzeratzen duen eta orainaldian boterea burgesiari ematen dion.

Leninen iritziz, proletariotzaren “klase ikuspegia” ezin zen identifikatu langile talde baten edo bestearen epe motzeko interes ekonomikoen gaineko ikuspegi doilor eta epe laburreko batekin. Kontrara, gizartea osotasunean ikusteko aukera, klase guztien arteko harremanak eta borroka ikusteko aukera da ikuspegi hori, kontziente izanik proletariotzaren emantzipazioa bat datorrela gizadi osoaren emantzipazioarekin

Boltxebikeen agertokia bestelakoa zen. Iraultza boltxebikearen gidaritza proletariotzaren esku baizik ezin zen egon, eta hortik eratorritako erregimena ez zen Frantzia, Ingalaterran edo Alemanian existitzen zen estiloko estatu ordena burges bat^[10], baizik eta errepublika demokratikoa, zeinetan botere politikoa proletarioen eta nekazarien aliantzaren esku egongo zen^[11]. Leninek agertoki horri “proletarioen eta nekazarien diktadura demokratikoa” deitu zion, eta hegemoniaren eskemako funtsezko elementua da. Aldi berean, hori ikuspegi sakonki internazionalista baten barruan txertatuta zegoen; izan ere, Leninek bazekien iraultzak ezin zuela berehala sozialismoa ekarri Errusia atzeratu batera: oinarri ekonomiko burgesetan oinarritu beharko zen proletarioen eta nekazarien gobernu. Hala ere, Errusiako ereduak Europako beste herrialde batzuk —herrialde oso aurreratuak— inspiratzen bazituen iraultza sozialista gauzatzera, Errusiako proletarioek botere politikoa Errusia bera sozialismoaren norabidean bultzatzeko erabili ahalko zuketena^[12].

Nahiz eta Leninek gartsuki azpimarratu nekazarien potentzia iraultzailea, bazekien bere eskemak ahultasun bat zuela. Nekazariak klase *jabeduna* dira; proletarioak, berriz, klase desjabetua dira, eta, ondorioz, modu objektiboan jabetzarekiko aurrez aurre daude. Ezin da sozialismoa eraiki nekazariotzako ekoizpen txikiaren oinarriaren gainean.

Ondorioz, Lenin jabetzen zen “nekazarien eta proletarioen diktadura demokratikoa” kontzeptuak berezko ahultasun bat zuela. Azken finean, garatutako Europan zehar iraultzak zuen hedapenaren mende zegoen guztia. Bestela, Errusiako atzerapen ekonomikoak botere proletarioaren forma oro irentsiko zuen azkenean, eta boterea burgesiari edo gobernu autokratikoko beste forma bati itzuliko.

Zenbait mitoren arabera, Leninek agerkunde bat izan zuen 1917an, eta, haren ondorioz, bere aurreko planteamendu guztiak bertan behera utzi zituen, magikoki errebelatu zitzaion sinesbide berri baten alde. Narratiba hori faltsua eta interesatua da: esentzian, jarraitutasuna dago Leninen ikuspegian, eta desberdintasunak koiunturan izandako aldaketen eraginezkoak dira.

Hauek dira desberdintasun nagusiak: 1) 1917an baldintza objektiboek berehala posible egiten zutelako 1905ean epe ertainerako apustu huts zen hori, hau da, iraultza proletarioa Europa osora zabaltzea; ondorioz, egitate horrek eta Errusiak orduko hartan baino garapen industrial handiagoa lortu izanak mahai gainean jartzen zuten sozialismorako trantsizioaren auzia; eta 2) Sobietak orokortzeak botere bikoitzeko egoera bat sortu zuen, eta horrek Estatu proletario berri bat sortzeko oinarria ezartzen zuen, konponbide konkretu eta ukigarria emanaz haren forma politikoen auzi arantzatsuari.

Edonola ere, 1917an, Lenin ortodoxoa izan zen: Otsaileko Iraultzatik sortu zena gobernu burgesa zen eta, Gobernu horren aurrean, alderdi proletarioak oposizio jarrera bat hartu behar zuten, haren garapen iraultzailea lortzeko helburuz. Otsailaren ondoren etorri ziren hilabete zorabiagarrietan, boltxebikeak jo eta su aritu ziren mezu hori sobieten artean zabaltzeko lanean, azkenean gehiengoa irabaztea lortu zuten arte. “Botere guztia sobietentzat” kontsignaren azpian proletarioen eta nekazarien diktadurarako programa oso bat zegoen, eta horregatik ezarri zen nekazariei lurra ematea. Neurri hori ez zen neurri sozialista bat, baina bai beharrezko neurri bat “hegemoniaren agertokiak” arrakasta izango zuela bermatzeko.

Otsail Gorrian gauzatu zen boterearen konkista hori langileen eta nekazarien arteko aliantza horren izenean gertatu zen, zeina hegemonia proletarioaren pean baitzegoen. Funtsean, apustu taktiko bat izan zen, iraultza Europa osoan zehar hedatuko zelako ustearen gainean eraikia.

Naturala denez, Europako iraultzaren porrotak hankaz gora jarri zuten, modu erabakigarrian, agertoki hori. Brest-Litovsketako itunarekin, Gobernu Sobietarrak gehiengoa galdu zuen: sozialiraultzaileak –Lenin buru zuten lehen gobernu osatu zuten nekazarien ordezkariak– Estatu Sobietarren etsai bilakatu ziren. Handik gutxira, potentzia inperialista nagusiek babestutako gerra zibil batek Errusia suntsitu zuen. Bizirauteko borroka agoniako batera behartuta, zinetan porrotak sarraski masibo bat ekarriko zuen –Finlandiako eskualde batzuetan, tropa “zuriek” hiru langiletik bat erail zuten–, boltxebikeek estatu aparatu burokratiko bat berreraiki behar izan zuten, gehiengo langile eta nekazariaren gainean eraikia eta kasu askotan ofizial tsarista ohiek kudeatua. Alderdia, azkenean, estatu aparatu horrekin fusionatu zen, zeina orain kontrolatzen saiatu behar baitzen. Burokratizazioa modu esponentzian bizkortu zen. Alderdia militarizatu eta bunkerizatu egin zen. Gerra-ekonomia zorrotza inposatu zen, eta nekazariak gogortasunez menderatu behar izan ziren.

Azkenik, balentria gogoangarrien eta sufrimendu ikaragarriaren ondoren, bando gorriak gerra zibilean garaile izatea lortu zuen. Lorpen ia sinetsezina izan zen: historian oso gutxi pareka daitezke harekin. Hala ere, lorpen hartatik jaio zen estatu forman, alderdiak diktadore kolektibo gisa funtzionatzen zuten, proletariotza murriztuaren eta nekazari masa erraldoi baten gainean altxatzen zen aparatu burokratiko batek sostengatuta, goseak eta heriotzak sarraskitutako herrialde batean. Europako iraultzak, aldiz, laster utzi zion berehalako zereginen agendan egoteari. Lur ezezagunetarako bidaia luze baten hasiera zen. Aurreko neurri horiek guztiak behar gorriak bultzatuta ezarri ziren, eta ez ziren, inolaz ere, boltxebikeen hasierako planaren parte. Neurri horien epe luzeko ondorioek, ordea, XX. mendeko komunismoaren patua erabaki zuten.

Azken urteetan, Leninek, bere bizitzan lehen aldiz, teoria marxistak aurreikusi gabeko esparru batean ikusi zuen bere burua: alderdi proletario batek boterea konkistatu zuen eta berak bakarrik zerabilen botere hori; bide horretan, alderdiak eraldaketa sakona jasan zuen, herrialde atzeratu eta ekonomikoki zein politikoki isolatu batean, proletariotza sarraskitu batekin eta berreraiki berria zen estatu aparatu burokratiko batekin. “Estatu proletario” hori ez zetorren bat Leninek berak *Estatua eta Iraultza* lanean deskribatutakoarekin. Herrialde isolatu, pobre eta nekazari batean sozialismoaren bidean aurrera egiteko beharra zegoen, jakinik zeregina hori nahitaez nazioartekoa zela.

Gerraren ondoren, Politika Ekonomiko Berria zeritzonak oinarri berria ezarri nahi izan zuten langileen eta nekazarien arteko aliantza zaharra suspertzeko, alde batera utzirik gerra-komunismoaren gordintasuna, laboreen konfiskazio behartua eta abar. Nekazariak bortxaz desjabetzea delirio politikoa zen Leninen begietan, bai eta gainerako marxista klasikoen begietan ere. Haren esperantza etorkizuneko mundu mailako iraultzaren esperoan egon eta botere sobietarra mantentzea zen; aliantza egin nahi zuten nekazariarekin, uste izanik desjabetutako industria handiaren gainean eraikitako gara-pen ekonomikoak berak ezabatuko zituela jabetza txikiaren oinarriak eta demostratuko ziela nekazariei hobea zela ekoizpen kooperatiboa.

“Botere guztia sobietentzat” kontsignaren azpian proletarioen eta nekazarien diktadurarako programa oso bat zegoen

Ikuspegi iraultzaile batetik begiratuta klase aliantza oro onargarria da bakarrik eta soilik proletariotzaren gidaritzapean, hori baita aurrerapenaren klase bakarra. Bigarrenik, Leninek azpimarratzen du proletariotzak, alderdi batean antolatuta, zapalduen masa osoari egin behar diola bultza (...). Hirugarrenik, aspaldi ahanzturan gelditu zen zerbait gogorarazten digu: subjektu politiko independente gisa eratuta proletariotzak gidaritzarako duen gaitasun txundigarria

Leninen azken testuetan, ezaugarri zuen kementa ordura arte ikusi gabeko beste elementu batekin konbinatuta ikusten dugu: haren kontroletik at zeuden indarrak askatu izanaren nolabaiteko kontzientzia. Atzera begiratu, dimentsio tragikoa hauteman dezakegu burokratizazioari aurre egiteko gauzatu zituen azken saiakeretan. Lenin hil ondoren, iraultza gero eta modu handiagoan lerratu zen beste norabide batean, 1917an boltxebikeek boterea bereganatu zutenean buruan zuten ideia oso bestelakoan.

Hirugarren Internazionalak, ordea, hasiera batean bultzatzen saiatu zen hegemonia boltxebikearen agertokia laster ordeztu zuen burgesiaren sektore “progresistekin” aliantzak egiteko politika batekin. Hortxe mentxebikeen mendeku berantiarra, mentxebikeak aurkarien arropaz jantzita itzuli zirenekoa^[13].

KODA

Estatu kapitalista aurreratuetan, Leninek ezagutzen zuen “nekazari-klasea” ia desagertuta dagoen klasea da gaur egin. Lehen sektoreak biztanleriaren % 5 ingururi baino ez dio lana ematean eta, oro har, nekazariak ez dira nagusiki biziraupenera bideratutako ekoizpenean aritzen diren ekoizle txikiak. Horretan ere denborak arrazoia eman dio marxismoari, hark esaten baitzuen garapen ekonomikoak nekazaritzako ekoizle txikien desagertzea bultzatuko zuela. Nekazarien eta sozialismoak XX. mendean zuen patuaren arteko loturaren historia oraindik ere idazteke dugu.

Hala ere, boltxebikeen hegemonia-kontzeptuak barne hartzen zuen irakaspenik orokorrenak baliatzen jarraitzen du. Lehenik eta behin, adierazten du ikuspegi iraultzaile batetik begiratuta klase aliantza oro onargarria dela bakarrik eta soilik proletariotzaren gidaritzapean, hori baita aurrerapenaren klase bakarra. Bigarrenik, Leninek azpimarratzen du proletariotzak, alderdi batean antolatuta, zapalduen masa osoari egin behar diola bultza, iraultza garaile atera dadin beharrezkoa den gehiengoa lortzeko. Hirugarrenik, aspaldi ahanzturan gelditu zen zerbait gogorarazten digu: subjektu politiko independente gisa eratuta proletariotzak gidaritzarako duen gaitasun txundigarria. Gutxi adierazi dute hori Zinoviev-ek bezain modu indartsuan. Zinoviev Leninen kamarada zaharrak, ekonomizistek sardonikoki galdetu ziotenean ea haren iritziz mesias bat ote zen proletariotza, hauxe erantzun zuen lasaitasunez:

“Mesiasak eta mesianismoa ez dira gure hizkuntzaren parte eta ez ditugu hitz horiek gustuko, baina onartzen dugu barne hartzen duten kontzeptua. Bai, proletariotza nolabait mesias bat da eta haren rola mesianikoa da; izan ere, mundu osoa askatuko duen klasea da. Langileek ez dute galtzeko ezer beren katez harago; beren lan indarra saltzen dute eta mundu hau oinarri berri batzuen gainean erakitzeko interesa duten klase bakarra dira. Gainera, gai dira nekazariak burgesiaren aurka gidatzeko. Saihestu egiten ditugu Mesias eta mesianismo gisako termino semimistikoak, eta nahiago dugu termino zientifikoa: proletariotza hegemonikoa^[14]. ●

OHARRAK ETA ERREFERENTZIAK

[1] Lenin, Vladimir. *Quiénes son los ‘amigos del pueblo’ y cómo luchan contra los socialdemócratas*, Ediciones en Lenguas Extranjeras, Pekín, 1978, 229. or. Aipuaren letra larriak testu horretan bezala mantendu dira.

[2] Ikus Harding, Neil. *Lenin’s Political Thought: Theory and Practice in the Democratic and Socialist Revolutions*, Harmarket Books, Chicago, 2009.

[3] Lenin, Vladimir. *Quiénes son...*

[4] Lenin, Vladimir, *El desarrollo del capitalismo en Rusia*, Marxist.org, 1899. Analisi ekonomiko marxistaren maisulana, bidegabeki ahaztua. Marxek Errusiari buruz idatzitako testu osatu gabeekiko obsesioak eta Leninen obra honekiko arbuioak (nahiz eta nabarmen aberatsagoa izan eta frogatu Marxek Errusiari buruz iragarritako aukerak historikoki zaharkituta gelditu zirela laster) argi erakusten dute Akademia garaikidearen fribolitatea eta muturreko ergelkeria.

[5] Nekazari klasearen arazoak gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen marxismo iraultzailean. Ikusi Engels, Friedrich "El problema campesino en Francia y Alemania", *Marxist.org*, 1894; Kautsky, Karl. *La cuestión agraria*, Marxist.org., 1903.

[6] Ikusi Lih, Lars. *Lenin*, Reaktion Books, 2011.

[7] Ikusi Lenin, Vladimir. "Political Agitation and the ‘Class Point of view’", *Marxist.org*, 1902; Schaeffer, Gil, "Lenin and the Class Point of View", *Cosmonaut*, 2020.

[8] Lih, Lars. *Ibid.*

[9] Ikusi Kautsky, Karl, *La doctrina socialista*, Marxist.org, 1899; Luxemburgo, Rosa *¿Reforma o Revolución?* Fundación Federico Engels, Madrid, 2006.

[10] Oro har oso zorrotza bada ere, *Lenin Redescubierto: El Qué hacer en Contexto*, (Lars Lih, Ediciones Extáticas, 2024) lanakren akatsik larriena da joera duela ez bereizteko Leninek iraultza demokratikoaren ondoren eraiki nahi zuen erregimen mota eta Alemanian (Leninen erreferentziako herrialdean) existitzen zen estatu burokratikoak, zenbait askatasunez apaindutakoa. Izan ere, miretsi egiiten bazituen ere bere Alemaniako kamaradek zituzten gutxieneko askatasunak, zeinak Errusian ezinezkoak ziren, bai eta haien bitartez lortu zuten guztia ere, Leninen errepublika demokratikoaren kontzeptua askoz haratago doa: estatu tsaristaren aparatatu burokratiko militarra suntsitzen duen erregimen bat da, boterea herriari ematen diona (nekazarien eta langileen arteko aliantza).

[11] Agintari sozialista nabarmenek, besteak beste Kautskyk, babesa eman zioten boltxebikeen estrategiari garai hartan. Ikusi Kautsky, Karl. "Fuerzas motrices y perspectivas de la revolución rusa", *Izquierdas*, 1906. Leninek hitzaurre bozkariotsu bat idatzi zion artikuluaen errusierazko itzulpenari; *Izquierdas* aldizkariaren bertsio digitalean ere aurki daiteke.

[12] Ikusi Lenin, Vladimir. *Dos tácticas de la socialdemocracia en la era de la revolución democrática*, Marxist.org, 1905. Jack Conradek maisuki azaltzen ditu boltxebikeen eta mentxebikeen arteko desberdintasun taktikoak eta estrategikoak honako lan honetan: Conrad, Jack. *In the Enemy Camp. Using Parliament for Revolution*, November Publications, Londres, 1993, 21.-34. or.

[13] Ikusi Martens Rodrigues, Francisco. *Anti-Dimitrov: medio siglo de derrotas de la revolución*, Dos Cuadrados, Madrid, 2024.

[14] Zinoviev, Gregori, *History of the Bolshevik Party*, Marxist.org, 1924.

HISTORIA
ERREPORTAJEA

Testuinguru historikoa eta eztabaidak III. Internazionalean

*

Marina Segovia





Vladimir Lenin, III. Internazionalaren Bigarren Kongresuko ordezkarien taldean. Petgrado, 1920.

«I. Internazionalak etorkizuneko garapena aurreikusi eta bidea prestatu zuen, eta II. Internazionalak milioika proletario bildu eta antolatu zituen. Bada, III. Internazionala masen ekintzaren Internazionala izango da, iraultzak egikaritzeko Internazionala»

Internazional Komunistaren Manifestua
mundu osoko proletarioei

Hirugarren Internazional Komunistaren lehen lau biltzarretan (1919-1922), hau da, artean Lenin bizirik zegoela egindako tesi eta ebazpenek izugarritzko garrantzi estrategikoa izan zuten, eta atzetik datorren guztia epilogo luze bat besterik ez dela baieztatzen du E. H. Carr historialak^[1]. Internazional Sozialista birsortzeko lehen saiakerak, hala eta guztiz ere, malkartsuak izan ziren: 1919ra arte itxaron behar izan zen mugimendu sozialista iraultzaileak, Urriko Iraultzaren babesean eta munduko iraultza sozialista bultzatzeko helburuarekin, Hirugarren Internazionala sor zezan.

XIX. mendearen hasieran, ortzi-muga itxaropentsua zen zinez, baina, I. Mundu Gerra piztu bezain laster, eten egin zen langileen erakundeen hazkunde ikusgarri hura. Izan ere, Bigarren Internazionalan sartutako alderdi sozialdemokratek beren burgesia nazionalen interes militarrak babestu zituzten, eta horrek behin betiko hondatu zuen estrategia sozialista internazionalistaren garapena. Gerrak ondorio tamalgarriak izan zituen, odolustu egin zuten proletalگو europarra, eta Errusian boterea boltxebikeek hartzeak bereziki areagotu zituen erreformisten eta iraultzaileen arteko tentsioak. Hala, testuinguru politikoa erabatu zen, eta langile mugimendu sozialdemokrata hirutan zatitu zen. Batetik, gehiengoak osaturiko taldea zegoen (sozialdemokrazia alemaniarra buru zuena): *Batasun Sakratuari*^[2] atxiki zitzaion eta Bigarren Internazionalarekiko leialtasuna mantendu zuen. Bestetik, zentristak zeuden: Kautsky zuten buru, eta Bigarren Internazionala berreraikitzearen alde zeuden. Azkenik, haren ezker hegaleko internazionalistak zeuden: gutxiengoa ziren, eta talde hori osatzen zuten Errusiako boltxebikeek eta gerra aurretik proletariotza iraultzailearen zereginen inguruan jarrera marxista izandakoek^[3]. Azken horiek Bigarren Internazionalarekin hautsi nahi zuten, eta estrategia internazionalistaren defentsa egingo zuen berri bat sortu. Boltxebikeentzat, Bigarren Internazionalaren kolapsoa sozialdemokraziaren zati handi batek hasitako erreformismorako bidearen ondorio logikoa baino ez zen:

“Oportunistak aspalditik ari ziren kolapso horretarako eremua prestatzen: iraultza sozialistari uko egin zioten, abertzaletasunaren eta aberriaren defentsaren maskara jarrita erreformismo burgesarekin ordezkatu zuten, (...) eta parlamentarismo eta legezketasun burgesaren beharra fetitxe bihurtu zuten^[4].”

Leninek onartzen zuen II. Internazionalak ezinbesteko lana egin zuela langileen antolakuntzan; edonola ere, buruzagien chauvinismoa eta oportunismoa salatu zituen. Era berean, legezketasun burgesari uko egiteko eta gatazka inperialista borroka iraultzaile bihurtzeko beharra aldarrikatu zuen. 1915eko maiatzetik eta ekainera bitartean, Leninek *II. Internazionalaren porrota* argitaratu zuen. Testu horretan, gogor egiten zuen gerra-kredituak bozkatu zituzten alderdi sozialisten jarrera aldaketaren aurka: “Antolakuntza iraultzailera igarotzea ezinbestekoa da. Egoera historikoaren aldaketak berak exijitzen du^[5].”


Zentristen edo bakezaleen eta iraultzaileen arteko eztabaida Zimmerwalden eta Kienthalen biltzarretan agertu zen berriz ere. Biltzar horietan ordezkari batzuek bat egon zen, eta, sozialdemokraziaren hegaleko iraultzaileak Internazional berri bat eratzearen aldeko apustu sendoa egin bazuen ere, aurrerapen partzialak baino ez ziren lortu, partaide zentrista batzuen jarrera zalantzatia zela eta^[6]. 1916ko apirilean egin zen Kienthalen biltzarra, eta, iraultzaren aldeko tesiak nagusi ez izan arren, erradikalitasun handiagoa lortu zen: bai tonuari dagokionez, bai sarraskiaren erantzuleei egindako salaketek dagokienez ere (hala nola sektore oportunistei egindakoak)^[7].

Boltxebikeek boterea hartu izanak anbiguotasunik gabeko posizioak hartzera behartu zituen alderdi sozialdemokratak

Bi biltzarrok berebiziko garrantzia izan zuten; izan ere, haien balio sinbolikotik haratago (gerra gaitzesteko nazioarteko lehen bilera marxistak izan ziren), geroago Hirugarren Internazionala sortzeko oinarriak ezarri zituzten. Hirugarren Internazional horren eginkizuna izan zen, aurrerago Leninek berak azaldu zuen bezala, praktikan jartzea Kautskyk iragazi gabeko marxismoaren aginduak eta errealitate bihurtzea proletarioen diktadura nazioarteko mailan.

Alderdi boltxebikeak gidatutako iraultza sozialista garaile izan zen Errusian, eta garaipen horrek agertoki berri bat ireki zuen: botere politikoa erdiesteak baldintza onuragarriak jarri zituen nazioarteko erakunde berri bat sortzeko, eta borroka politikoen kapitulu berri bat berpiztu zuen, non matxinada Errusiaren mugetatik haratago hedatu baitzen. Gerrak eta goseak errausturik gelditu zen Europa, eta, garai horretan, grebak, desertzioak, matxinadak eta protestak izan ziren nagusi. Horren erakusgarri izan zen Alemaniako altxamendu espartakista: altxamendua 1918ko amaieran hasi zen eratzten, eta Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht buruzagien hilketa izugarriarekin amaitu zen (gobernu sozialdemokrataren aginduetara zeuden agente kontrairaultzaileek erail zituzten). Europa osoan zehar hedatutako matxinadei jarraikiz, zatiketa politikoa ugari gertatu ziren, eta eragina izan zuten herrialde sozialdemokrata nagusietan. Boltxebikeek boterea hartu izanak anbiguotasunik gabeko posizioak hartzera behartu zituen alderdi sozialdemokratak. Ondorioz, bi joera bereizi ziren: alde batean alderdi sozialdemokrata zaharrak geratu ziren, elementu iraultzaileetatik "garbiak", eta, bestean "Zimmerwaldeko ezkerria" deituriko taldea, boltxebikeak, espartakista alemaniarrek, *tribunista* holandarrak eta beste talde minoritario batzuk biltzen zituena.

1919ko urtarrilaren 24rako, Errusiako Alderdi Komunistaren Komite Zentralak nazioarteko biltzar bat deitu zuen, Internazionala sortzeko lehen urratsak emateko helburuarekin. Ordurako, Alemaniako delegazio espartakistaren ordezkariak Alemaniako Alderdi Komunista (KPD) izena zuen, eta Eberlein izan zen haren delegatua biltzarrean. KPDk Rosa Luxemburgen hilketaren aurretik adostutako agindu bat defendatu zuen Eberleinek: biltzarrek Internazionala prestatzeko balio behar zuela, ez hura eratzeko. Horren aurrean, boltxebikeak malgu agertu ziren, eta Eberlein konbentzitzen saiatu ziren, ez baitzuten Internazional Komunista KPDren aurkako botoarekin onetsi nahi. Edonola ere, Steinhardten etorrerak, egun bat geroago, egoera aldatu zuen: baikor azaldu zuen Vienan iraultzak irabaziko zuela berehala. Eberleinen absentsioa gorabehera, biltzarra kongresu gisa eratu zen, eta Hirugarren Internazionala sortu zen. Internazional Komunista (IK) ere deitzen zaio, edo, errusieraz, Komintern, eta zazpi nazioarteko biltzar izan zituen indarrean egon zen aldian, 1943ra arte. Nahiz eta, aurrekoen oinordetza jasoz, Hirugarren Internazionala izendapenetik abiatu ziren, "Internazional Sozialdemokrata" ospegabearen aurrean Internazional benetan komunista bat eratzeko asmoa zuen, bai eta hura eratu zuten alderdiak haren sekzio bihurtzekoa ere.



III. Internazionala sortzea eskatzen duten kontsignak
Boltxebikeen manifestazio batean (1917).



Karl Liebknecht Berlingo
manifestazio baten buruan (1918).

***III. Internazionala ez zen soilik
alderdi eta langile-erakunde
nazionalen elkartze bat, baizik eta
nazioarteko proletarioen Alderdi
Komunista gisa jarduten zuen***



III. Internazionalaren Lehen Biltzarraren bilkura (Petrogrado, 1919ko martxo)



Vladimir Lenin III. Internazionalaren Lehen Biltzarraren gidari (1919).

Leninek demokrazia burgesari aurre egiteko eta proletarioen diktadura gauzatzeko beharra defendatu zuen, eta botere politikoa konkistatzeko jarraibideak eman zizkien alderdi komunistei

Lenin bizirik zela egindako lehen lau biltzarretan finkatu ziren programa komunistaren oinarritzko printzipioak, eta eztabaida nagusiak honako hauek izan ziren: antolakuntzari zegozkion egitekoak, "proletalgoaren diktaduraren" definizioa, fronte bakarraren taktika eta borroka antiimperialistaren estrategia. Lehenengo lau biltzarretan handituz joan ziren bai asanbladaren beraren tamaina, bai haren garrantzia; hala, lehen biltzarrak, 1919koak, 33 herrialdetako 51 ordezkari izan zituen, eta laugarrenak, 1922koak, 61 herrialdetako 408 ordezkari. Garrantzitsua da azpimarratzea III. Internazionala ez zela soilik alderdi eta langile-erakunde nazionalen elkartzeko bat, baizik eta nazioarteko proletarioen Alderdi Komunista gisa jarduten zuela. Haren asmoa mundu mailako mugimendu politiko bat eratzea zen, erdigunetik zuzentzen zena eta klase-borrokaren azterketa elkarlotuan oinarritutako ekintza-plan global batera bideratzen zena.

Hirugarren Internazionalaren lehen biltzarrean, Leninek demokrazia burgesari aurre egiteko eta proletarioen diktadura gauzatzeko beharra defendatu zuen, eta botere politikoa konkistatzeko jarraibideak eman zizkien alderdi komunistei:

"III. Internazionalaren, hau da, Internazional Komunistaren garrantzi historiko unibertsala Marxen kontsigna garrantzitsuena praktikan jartzea da. Kontsigna hori sozialismoaren eta langile-mugimendua- ren mendetako garapena da, kontzeptu honek definitzen duena: proletalgoaren diktadura^[8]."

1919ko udaberriaren eta 1920ko udaren artean, izaera sozialista eta antiimperialistako grebak eta iraultza-hasierak izan ziren Europan eta kolonietan. Gertakari horien eraginez, iraultza-itxaropeneko giroa zabaldu zen: sozialismoa zen kontzebitu zitekeen etorkizun bakarra. Hala ere, gerran borrokatu ziren herrialdeetako alderdi sozialdemokratik Bigarren Internazionala suspertzen ahalegintzen ari ziren (Bernako Biltzarra 1919an, Genevako Biltzarra 1920an); europar ordena berria indartu zuten Versaillesko biltzarren bidez, eta jarrera kontrairaultzailea hartu zuten, grebak eta langileen borroka indargabetu baitzituzten.



Vladimir Lenin III. Internazionalaren Bigarren Biltzarreko bilkuran, mundu osoko ordezkariak mintzo. Isaak Brodskyren artelana (1924).





Vladimir Lenin nazioarteko egoeraz mintzo III.
Internazionalaren Bigarren Biltzarrean (Mosku, 1920ko uda)

Bigarren biltzarra 1920ko uztaila eta abuztua bitartean egin zen, oso bestelako testuinguruan: Bavariako eta Hungariako Kontseiluen Errepublikak aldarrikatu eta porrot egin zuten; Alemanian, langileak garaile atera ziren Kappen *putsch*aren aurrean, eta Ruhr eskualdean ere altxamenduak izan ziren kontseilu-errepublika bat antolatzen saiatzeko; armada gorria ere aurrera zihoan, eta, tropa poloniarrek geldiarazi ondoren, erasoaldira igaro zen^[9]. Hala, bigarren biltzar horretan, parte hartzea masiboa izan zen, eta Europako mendebaldeko masa-alderdi gehienak batu ziren. Deialdi arrakastatsu horren ondorioz, Leninek, Zinoviekek eta Trotskyk 21 puntuko dokumentu bat gehitu zuten biltzarren agendan: herrialdeei Internazionala osatzeko onartu behar zituzten baldintza batzuk aurkezten zitzaizkien, eta, haiek onartuta, haren sekzio nazional izatera pasatuko ziren. Hauek ziren programa-puntuak, Internazionalan onartuak izan aurretik bete behar zituztenak alderdiek: Internazionalaren akordioei men egitea, oportunitismoarekin haustea, Alderdiaren Komite Zentralaren mendeko aparatu klandestino bat sortzea, agitazio- eta propaganda-lan sistematikoak abiaraztea eta kolonien autodeterminazio-eskubidea eta askapenerako mugimenduak aitortzea. Beraz, batetik, Europako potentziek I. Mundu Gerrari amaiera eman zioten Versaillesko Itunaren bidez, eta lurralde-banaketa berri bat legezatu zuten, eta, bestetik, herrialde kapitalistetako langile- eta nekazari-masak kolonietako langileekin batzeko beharra azpimarratu zuten Kominternek.

***Europako potentziek
I. Mundu Gerrari
amaiera eman zioten
Versaillesko Itunaren
bidez, eta lurralde-
banaketa berri bat
legeztatu zuten, eta,
bestetik, herrialde
kapitalistetako
langile- eta nekazari-
masak kolonietako
langileekin batzeko
beharra azpimarratu
zuen Kominternek***



Langileen manifestazioa Moskuko Plaza Gorrian, III. Internazionalaren Bigarren Biltzarren inaugurazioaren karietara (1920).



Vladimir Lenin eta Elena Stasova III. Internazionalaren Bigarren Biltzarrean (1920).



Vladimir Lenin III. Internazionalaren Bigarren Biltzarrean (1920).

***Errusian (Europako potentzia ahulenean)
arrakasta izan zuen iraultza-ereduak zailtasun
handiak izan zituen herrialde kapitalista
garatuetan: potentzial iraultzaileak aurre egin
behar izan zien bai estatuaren botere-aparatuari,
baita langileen artean tradizio eta ezarpen
zabala zuten erakunde sozialdemokratei ere***


Internazional Komunistaren Hirugarren biltzarra 1921ean egin zen, "Martxoko Ekintza" izenaz ezagutzen den alemaniar matxinadaren porrotaren ondorengo atzera-egite testuinguruan. Izan ere, gertakari hura kapitulu tragikoa izan zen Alemaniako iraultzaren garapenean, hondamendian amaitu zen eta. Horrek eztabaida sakona piztu zuen Internazionalaren baitan, eta hirugarren eta laugarren biltzarren ebazpenak baldintzatu zituen. Aurreko bi biltzarrak baikortasun orokortuko giroan egin ziren, non iraultza proletarioaren garapenak hurbilekoa zirudien herrialde kapitalista garatuetan; hala ere, 1921eko ekaineko dokumentuek zuhurtzia handiagoa erakusten dute. Kapitalismoa egonkortzen eta iraultzaren bolada ixten ari zen garai horretan, Hirugarren Internazionala osatzeko 21 baldintza ospetsuen helburua zen hirugarren eta laugarren biltzarrean Internazionalera sartzeko eskatu zuten alderdi zaharren elementu erreformista eta oportunisten gaineko kontrola ezartzea. Era berean, ezkerkeriazko joeren garapenari ere aurre egin behar zitzaion, eta, horretarako, Leninek *Ezkerkeriaren haur-gaitza komunismoan* testu ezaguna argitaratu zuen. Lenin eta nazioarteko ezkerkeria aurrez aurre jarri zituen eztabaida hark funtsezko gai bat argitu nahi zuen: boltxebismoak errusiarra baino izan ezin zen eredu iraultzaile bati erantzuten zion, ala Europa mendebaldeko herrialdeentzat eredu izan zitekeen? Ezkertiarrek fenomeno boltxebikearen ikuspegi erredukzionista planteatzen zuten, eta uko egiten zieten marxismoaren printzipio klasikoei.

1923. urtea erabakigarria izan zen Internazional Komunistarentzat. Salbuespenezko iraultza-egorera baten aurrean, Alemaniako Alderdi Komunistak porrot egin zuen, Hanburgoko altxamendu matxinatuaren errepresioaren ondorioz. Errusian (Europako potentzia ahulenean) arrakasta izan zuen iraultza-ereduak zailtasun handiak izan zituen herrialde kapitalista garatuetan: potentzial iraultzaileak aurre egin behar izan zien bai estatuaren botere-aparatuari, baita langileen artean tradizio eta ezarpen zabala zuten erakunde sozialdemokratei ere. Perspektiba-aldaketa berria Leninen 1920ko idazkietan ageri da, adierazten baitu masak apatiko zeudela ordurako:

“Herrialde kapitalistetako iraultzaren abiadura eta garapen-erritmoa gurea baino askoz motelagoa da. Argi zegoen herriek bakea lortzen zutenean mugimendu iraultzailea gutxitu egingo zela ezinbestean. Ezin dugu jakin, eta inork ezin du alde zurretik jakin, noiz lehertuko den han benetako iraultza proletarioa, eta zein kausa berehalakok iratzarriko, piztuko eta borrokara bultzatuko dituen gaur egun lo dauden masa zabalak. Horregatik da gure betebeharra prestaketalana egitea^[10].” ●



Vladimir Lenin oharrak hartzen III. Internazionalaren Hirugarren Biltzarrean (Mosku, 1921eko uda).



ERREFERENTZIAK

[1] Carr, E. H., *Historia de la Rusia Soviética. La Revolución Bolchevique (1917-1923). 3 la Rusia Soviética y el mundo*, Alianza, Madrid, 1985.

[2] Batasun Sakratuak su-eten bat zekarren babesa ematen zioten alderdi politikoen artean, non alderdiek I. Mundu Gerraren garapenean gobernuaren aurka ez egiteko eta grebak ez hasteko konpromisoa hartzen zuten.

[3] Stuttgarterko biltzarreko militarismoari buruzko ebazpena. 1907ko abuztuaren 1etik 24ra Stuttgarten ospatutako Bigarren Internazionalaren Zazpigarren biltzarra.

[4] LENIN, V.I., *Obras Completas*, XXI lib., Akal,

[5] LENIN, V.I., *La bancarrota de la II Internacional*, Barcelona, Anagrama, 1975.

[6] Ikus GARCÍA, Miguel, "El movimiento revolucionario durante la primera mitad del siglo XX".

[7] HUMBERT-DROZ, Jules, *L'origine de l'Internationale communiste. De Zimmerwald a Moscou*, Neuchatel, Éditions de la Baconnière, 1968, 168-214 or.

[8] LENIN, V.I., *Obras escogidas en doce tomos, Ediciones Progreso, Moscú, 1977, IX. lib., 405. or.*

[9] Kappen *putsch* esaten zaio Wolfgang Kapp eskuin muturreko politikariak 1920ko martxoaren 17an, Weimarko Errepublikaren hasieran, zuzendutako estatu-kolpeari. Porrot egin zuen greba orokorrerako deialdiaren eta KPDK borroka armaturako egindako deiaren ondorioz sortutako langileen erresistentzia gogorragatik.

[10] RIDDELL, J. (ed), *Workers of the world and oppressed peoples, unite! Proceedings and documents of the 2nd Congress, 1920*, Atlanta, 1991, 27. or.

HAMARKADAK DIRUDITEN ASTEAK: LENIN, ESTATUA ETA IRAULTZA

Testua — **Alex Fernandez**

Irudia — **Adam Radonsky**

Leninek bere bizitza eman zuen iraganeko iraultzak *aztertzen*, etorkizuneko iraultzetarako *prestatzen* eta zorionez bere ibilbide politiko luzeko bi unetan (1905ean eta 1917an) suertatu zitzaizkion iraultzak *gibatzen*. Ordura arte ikusi gabeko Estatu baten sorreran isuri zuen bigarren iraultzaren urak: historian lehenengo aldiz, esplotatutako gehiengoak zeukan boterea, eta ez gutxiengo esplotatzaileak. Zer esan daiteke Lenini, Estatuari eta iraultzari buruz mila hitz eskasetan? Ikus dezagun.

O hiz kanpoko une batzuetan, bizitza publikotik baztertuta dauden klaseek bat-batean hartzen dituzte botere politikoaren zeruak. Historiaren une benetan emankorrak dira horiek; hainbat hamarkadatan pixkanaka pilatu ondoren, gizartearen errailetan itzalita dagoen energia askatzen dute esperientzia horiek. Marxismoaren *abezea* ezagututa, Leninek bazekien proletariotzak, boterea emango dion iraultzarik gabe, ezin dituela bere esplotazioaren sustrai ekonomikoak eraldatu; izan ere, "orokorrean, eraldaketa politiko erradikalen bidez bakarrik ase daitezke klaseen interesik funtsezkoenak eta erabakigarrienak"^[1]. Bere egin-kizun historikoa betetzeko, proletariotzak botere politikoa konkistatu behar du.

Marxismoaren printzipio hori 1793ko, 1848ko eta 1871ko iraultzetako esperientziek egiaztatu zuten. Horietatik Leninek ikasi zuen "Estatuaren boterea *klase* baten eskuetatik beste baten eskutara pasatzea dela *iraultzaren* lehen ezaugarria, nagusia, funtsezkoa"^[2]. Baina momentu iraultzaileak logika espezifikoki bati erantzuten dio; logika hori hamarkadako bake sozial gogaikarriari kontrajartzen zaio. Klase guztiak boterearen aldeko borroka politikoaren hondarrera eramanez gero, iraultzaren "zurrunbiloak" posizionatzera *behartzen* ditu gizarteko *alderdi guztiak*. Guztien arteko borroka ireki bat da, eta *aldi baterako bertan behera utzi diren* joko-arauak definitzea du helburu. "Une erabakigarri bat" da, ekintza bakoitzak –zein omisio bakoitzak– irismen oso luzeko ondorioak baititu, etorkizuneko gertaeren sekuentzia osoaren inguruan "erabakitzen" duelako.

Iraultza guztien esperientziak erakusten du hiru funtsezko jarrera sortzen direla beti une erabakigarrian, gizarte modernoko hiru klase nagusiak ordezkaturik. 1) Burgesia, iraultza ororen aurka, aldaketa politiko eta ekonomikoa saihesten saiatzen da; horretarako, ordena zaharraren *berrezarpena* bultzatzen du, bitarteko guztien bidez; 2) Burgesia txikiak (erdi-mailako klaseek, nekazariak eta abarrek osatuak), iraultza gogoko badu ere, ez du burgesiarekin erabat apurtzeko pausoa ematen. Bere "ilusio konstituzionalistek", bere "kretinismo parlamentarioak" eta ausardia faltak kondentatzen dute berrezarpenaren eta iraultzaren artean ibiltzera, zalantzan beti ere; 3) Proletariotza da iraultza *azken ondorioetaraino* eramateko egiazko interesa duen klase bakarra. Bere alderdiak baino ez du goran eusten iraultzaren bandera, haren fase guztietan zehar, eta haren azken helburua ahaztu gabe.

Boterearen arazoa iraultza ororen funtsezko arazoa da, eta hiru klaseen arteko *botere-harremanak ordena politiko berri batean birdefinituz* konponetzen da. Baina iraultza bat ez da zerutik erortzen. Beti sortzen da borondatezkoak ez diren baldintza objektibo batzuen ondorioz. Funtsezkoena: indarrean dagoen –eta Estatuaren gobernu-ahalmena hausten duen– *ordena politikoaren krisia*. Leninek honela laburbildu zuen: "Iraultzarako, nahitaezkoa da esplotatzaileek lehen bezala bizi eta gobernatu ezin izatea. '*Behe-geruzek*' zaharra nahi ez dutenean eta '*goiko geruzek*' antzinako moduari eutsi ez diotenean, orduan bakarrik lor dezake Iraultzak arrakasta"^[3].

Krisi politikoak ezkutuan zegoen botere-harremana *azaleratzen* du. Eragile bakoitza argi eta garbi kokatzera behartzen duenez, masek *esperientzia zuzena* izan dezakete gertaera erabakigarrien aurrean klase bakoitzak duen jarreraren inguruan. Bake garaian, aukera hori galarazita dago, eta adierazpen zein maniobra bakoitzaren azpian dauden interesak argitzeko modu bakarra da propaganda eta heziketa pazientea dakartzan ariketa zorrotz bat. Propaganda horrek, gainera, proletario masaren *gutxiengo* bat baino ez du hezten. Krisi iraultzailearen momentu batean, ordea, proletarioak *trumilka* pasatu daitezke klase-posizio iraultzailean, eta, gainera, abiadura bizian –iraultzaren unean, asteak hamarkadaka zenbatzen dira–.

Boterearen arazoa iraultza ororen funtsezko arazoa da, eta hiru klaseen arteko botere-harremanak ordena politiko berri batean birdefinituz konponetzen da. Baina iraultza bat ez da zerutik erortzen. Beti sortzen da borondatezkoak ez diren baldintza objektibo batzuen ondorioz

Baina, horretarako, bigarren baldintza bat behar da. Antolatutako borondate kolektiborik gabe, klase iraultzailearen interesak ordezkatzen dituen alderdirik gabe, masak burgesiaren eta burgesia txikiaren zuzendaritzapean eroriko dira, krisi iraultzailea ezertara iritsi aurretik itxiko da eta, azkenik, kapitalisten erregimen politikoa berrezarriko da, izan modu agerikoan zein makillatuta. Iraultza garaileak alderdi bat *aldez aurretik prestatzea* eskatzen du. Eta ez edozein alderdi, iraultzailea eta masa-izaerakoa baizik. Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokrata-Lenin zen buruzagi garrantzitsuetako bat- masa-alderdi iraultzaile bihurtu zen 1910eko hamarkadan. Alderdi hori gabe, 1917ko urriko iraultza ezi-nezkoa izango zen.

Masa-alderdi iraultzaile eta kontziente batek soilik balia dezake gobernu-indarren krisi politikoa, eta hark bakarrik zuzen dezake proletariotza agertoki erradikalenerantz, *governatzeko duen eskubideaz* konbentziturik eta eskubide horren erabilera babestuko duen *gehiengo erabakigarri* bat konkistatuz. Hau da, alderdi proletarioak bakarrik eraman ditzake une iraultzailearen aukerak azken ondorioetaraino, Estatuaren aginte-krisia agintaritzza politiko alternatibo baten eraketa bihurtuz; alegia, erregimen politiko berri bat eratuz. Leninen ustez, funtsezko arazoa ez datza gobernuo kideen edo alderdien aldaketan, Estatuaren *formaren* aldaketan baizik. Iraultzak, garaile izateko, Estatu berri bat ez ezik *Estatu mota berri* bat ere eratzea lortu behar du.

1917ko otsailean, krisi politiko orokor bat piztu zen Errusian, eta tsarismoaren erorketa azkartu zuen horrek, Behin-behineko Gobernu bat ezarriz. Zabalik geratu zen eratuko zen Estatu motaren inguruko auzia, honako aukerekin: *monarkiaren* berrezarpen osoa, errepublika *burgese oligarkiko* baten sorrera edo *benetan demokratikoa* izango zen nekazari- eta langile-errepublika baten eraketa. Behin-behineko Gobernuaren botereak -burgesiak eta burgesia txikiak osatuta eta babestuta- lehen bi aukeretako baten alde egiten zuen (hitzekin beti ez bazen ere, ekintzekin behintzat). Baina Behin-behineko Gobernu ez zen, garai hartan, agintaritzza politiko bakarra. San Petersburgon, besteak beste, botere efektiboa langileen eta soldaduen sobieten diputatuen esku zegoen. Beraz, 1917ko otsailetik urrira bitartean, Errusian *botere-dualtasuna* nagusitu zen.



Leninen ustez, funtsezko arazoa ez datza gobernu kideen edo alderdien aldaketan, Estatuaren formaren aldaketan baizik. Iraultzak, garaile izateko, Estatu berri bat ez ezik Estatu mota berri bat ere eratzea lortu behar du

Leninek ikusi zuen botere-dualtasunak *bi estatu moduren* arteko lehia ordezkatzeko zuela. Bi modu horien arteko desberdintasunean datza "arazoaren mamia"^[4]. Armada, Polizia edo aparatatu burokratikorik gabe, sobietek, *de facto*, botere guztia masa armatuen eskuetan kontzentratzea gorpuzten zuten. Leninek behin eta berriz errepikatu zuen: "Hori da guk behar dugun 'Estatu' mota!"^[5]. Kontua zen, orduan, *botere-dualtasunaren* testuinguru berezi hori sobieten boterearen mesederako heltzea, Behin-behineko Gobernu burgesaren boterearen kalterako. Hori zen berrezarpenaren aukera deuseztatze bide bakarra: masa armatuen botereak bakarrik "babestu, sendotu eta garatu zezakeen iraultza"^[6].

Behin-behineko Gobernuaren esku zegoen onartzea erregimen berriaren oinarria sobieten boterea izango zela. Hau da, *bere legitimitatea tsarismoa eraitsi zuten masen botere matxinatuan oinarritzea*. Baina Behin-behineko Gobernuak bere legitimitatea etorkizuneko Batzar Konstituziogile baten *promesean* oinarritu nahi zuen; batzar horretan, hiru alderdien arteko elkarrizketan erabaki behar zen Errusiarentzat Estatu mota egokiena zein zen (monarkia, oligarkia edo demokrazia). Errealitatean, aldiz, Parlamentuak ez zuen eskumenik "erabakitzeko", "aldarrikatzeko" edo "arautzeko" ea herria subiranoa zen ala ez; izan ere, herriak *kalean konkistatu zuen bere subiranotasuna*. *Legalismo* edo "instituzionalismo" burges txikiak kontrairaultzaren esku uzten zituen *boterearen tresna materialak*, iraultzaren konkistak blindatuko zituen etorkizuneko Konstituzioaren ilusioa tarteko. Leninek bazekien: iraultza *amaieraraino* eramanez bakarrik *salba* zitezkeen iraultza eta haren konkista guztiak; hau da, herriaren boterea eta subiranotasuna onartuz Estatuaren printzipio gidari modura. Bestela esanda: botere guztia sobietei ematea eta horiek Estatuaren oinarri bihurtzea zen bide kontsekuente bakarra.





1917ko otsailetik urrira bitarteko zenbait unetan, iraultzaren *garapen baketsua* aukera erreal bat izan zen. Horretarako, boterea borondatez aldatu behar zen Behin-behineko Gobernuaren eskuetatik Sobieten eskuetara. "Botere guztiaz jabetuz gero -zioen Leninek-, sobietek gaur egun ere ziuarta lezakete (...) iraultzaren garapen baketsua, herriak bere diputatuak modu baketsuan hautatzeko aukera, sobieten barruko alderdien arteko borroka baketsua, alderdien programen kontrastatze praktikoa, boterea modu baketsuan pasatzea alderdi batetik bestera"^[7]. Baina burgesia txikiaren alderdien esku zegoen bide hori egiteko aukera. Horiek Behin-behineko Gobernuaren *barruan* zeuden, burgesiaren alderdiarekin batera, eta *gehiengoa* ziren sobietetan, alderdi proletarioarekin batera. Alderdi proletarioa sobieten barruan *gutxiengoa* zen bitartean, arriskutsua zen Behin-behineko Gobernuan matxinada egitea.

Kontrairaultzak aurrera egin izanak (Uztaileko Jardunaldiak, Korniloven Kolpea...) behin betiko itxi zuen iraultzaren garapen baketsurako aukera. Alderdi proletarioak pazientziaz kritikatu zituen burgesiaren traizioa eta burgesia txikiaren inkontsekuentzia, eta bere *gobernu-programa* beste biei kontrajarri zien. Horri esker, *gehiengo erabakigarria* lortu zuen eta horrek ordura arte izan gabeko *indarra* eman zion. Iraultza haren hondoratze saihestezinetik salbatzeko, boterea sobieten esku egotera pasatu behar zen, Behin-behineko Gobernuaren borondatearen -*ordurako gutxiengoa*- aurka: *matxinada puri-purian* zegoen^[8].

Mundua inarrosi zuten hamar egunetan, proletarioen alderdiak Behin-behineko Gobernu abolitu zuen. Gobernu-koalizio bat osatu zuen burgesia txikiaren ezker hegalarrekin —ezkerreko eseristak—, eta Estatuaren oinarritzat aitortu zituzten Sobietak^[9]. Zein dira Estatu mota horren printzipio nagusiak? Galdera horri erantzuteko, Leninek uste du lehenik beste honi erantzun behar zaiola: zein da Estatu mota bakoitzaren *boterearen iturria*?

Estatu parlamentario burgesean —edo Zuzenbide Estatuan—, *legea* da subiranotasunaren iturria. Hori botere legegilearen, botere betearazlearen eta botere judizialaren artean dago banatuta, eta elkarrekin blindatzen dituzte *gutxiengo* esplotatzailearen klase-interesak. Parlamentarismoaren printzipioak, botereen banaketa eta eskubide politikoek murrizketa (biltzeko, elkartzeko, adierazteko edo bozkatzeko eskubidea murriztea) dira burgesiaren Estatu oligarkikoaren beharrezko eskola. Erregimen parlamentario burgesean, legearen autoritateak gutxiengo horren jabetza babesten du, *mugak* jarriz proletariotzaren borondateari. Estatu parlamentario burgesa, funtsean, *burgesiak proletariotzaren gainean duen diktadura* da.

Errusian garatzen ari zen Estatuan, zeinak Parisiko Komunaren ereduari hartu baitzuen inspirazioa, "boterearen iturria ez zegoen lege batean —alde aurretik Parlamentuak eztabaidatu eta onartutakoa—, herri-masen behetik gorako iniziatiba zuzenean baizik"^[10]. Zentzu horretan, Leninek dio "demokrazia" dela "gutxiengoa gehiengoaren menpe egotea onartzen duen *Estatua*, hau da, klase bat bestearen kontra *indarkeria* sistematikoa erabiltzera bultzatzen duen antolaketa bat"^[11]. Funtsean, *proletariotzak* gutxiengo esplotatzailearen gainean duen *diktadura iraultzailea* da^[12].

Hiru dira, funtsean, boterearen iturria gehiengo proletarioaren borondatean kokatzen duen Estatuaren printzipioak: *ordezkaritza-erakundeak* (parlamentarismoa deuseztatzea), *botere guztia* erakunde horietan biltzea (botereen banaketa eta aparatu burokratiko-militarra deuseztatzea) eta herri guztien *berdintasun* politiko-soziala (funtzio publikoetarako sarbide pribilegiatua deuseztatzea, eskubide politikoak mugatu beharrean).

1) Ordezkaritza-erakundeak, hautapen bidezko ordezkari arduratsu eta ezeztagarriak baitira gehiengoaren borondatea aplikatzeko bitarteko bakarra. *Legerik* aldarrikatzen ez duten diputatuek osatzen dituzte ordezkari-erakundeak; aitzitik, gehiengoaren borondatea adierazten duten *neurriak* ematen dituzte.

2) Herriaren ordezkari hautetsiek botere osoa biltzen dute, botere legegilea botere judizialek eta betearazletik bereizteak —bere funtzionario- aparatutik eta aparatu militarretik banatuta— *muga burokratikoak* ezartzen baitizkio gehiengoaren borondateari. *Ordene publikoa* ez du defendatuko funtzionario, militar, epaile eta polizia osatutako indar berezi batek, *herri osoaren milizia* batek baizik.

3) Berdintasuna, gizarteko kide guztiek eskubide bera baitute botere publikoa erabiltzeko. Kontua ez da gizabanako pribatuen berdintasuna legearen *aurrean* —legea *kanpo-autoritate* baten iturria baitlitzan—, baizik eta gizabanako horien arteko berdintasuna komunitate politikoko kide subirano gisa; hau da, *governatzeko eskubide* beraren eramaile gisa. Azken printzipio horretan laburbiltzen dira aurrekoak eta, Leninen arabera, printzipio horrek adieraziko du kapitalismoa sozialismo bihurtu dela: "Demokraziak berdintasuna esan nahi du. Berdintasunarekiko eta horren kontsignarekiko borroka proletarioak ezinbesteko garrantzia du, eta horren interpretazio zehatza eginez gero, honakoa iradokiko digu: *klaseen* suntsipena"^[13].

Jaiotzen ari zen demokrazia berriaz honakoa zioen Leninek: "demokrazia izateari uzten dio; izan ere, demokraziak herriaren mendekotasuna dakar, eta herri armatuak berak ezin du bere burua menderatu"^[14]. Estatu Estatu izateari uzten ari zen. Baina hori ez zen gertatzen desagertzen ari zirelako erabakiak hartzeko mekanismo kolektiboak, taldeak alderdikoiak edo gutxiengoaren iritzia gehiengoaren iritzia mendean jartzeko prozeduren beharra. Desagertzen ari zena, ostera, erakunde publikoen *funtzio errepresiboa* zen; izan ere, gizartearen alderdi guztiek bidera zitzaketen beren borondatea eta interesak lege ezarritako bideetatik.

Gutxiengoa gehiengoaren menpe dagoela onartzen duen Estatu ez da sozialismoa eraikitzeko bitarteko posible bat, prozesu horren beharrezko *forma politikoa* baizik: ekoizpen-bitartekoaren kontrol kolektiboa ahalbidetzen duen Estatu mota da. Gehiengo proletarioak gobernatzen duen Estatu "demokratismoaren fase bat da, eta gizarte burgesearen esparrutik ateratzen da. Estatuaren eraldaketa sozialistaren hasiera da. *Guztiak* benetan esku hartzen badute Estatuaren zuzendaritzan, kapitalismoa ezingo da gehiago sostengatu"^[15]. ●



ERREFERENTZIAK

- [1] Lenin, V., “¿Qué hacer?”, *Marxists.org*, 1902.
- [2] Lenin, V., *Entre dos revoluciones*, Siglo XXI, 2017, Madril, 59. orr.
- [3] Lenin, V., *La enfermedad infantil del izquierdismo en el comunismo*, Ediciones Akal, Madril, 2021, 100. orri.
- [4,5,6,7] Lenin, V., *Entre dos revoluciones*, Siglo XXI, 2017, Madril, 72. orr.
- [8] Lenin, V., “El marxismo y la insurrección”, *Marxists.org*, 1917.
- [9] Lehen gobernu sovietsarrari buruz, ikus Douds, Lara, *Inside Lenin’s Government. Ideology, Power and Practice in the Early Soviet State*, Bloomsbury Academic, London, 2018.
- [10] Lenin, V., *Entre dos revoluciones*, Siglo XXI, 2017, Madril, 72. orr.
- [11] Lenin, V., “El estado y la revolución”, *Marxists.org*, 1917.
- [12] Demokraziaren eta zuzenbidezko estatu burgesaren arteko antagonismoa ere beti aipatu izan dute iraultzaren etsaiek. Ikus, adibidez, Schmitt, Carl, *Teoría de la constitución*, Alianza Editorial, Madril, 2024. Arendt, Hannah, *Sobre la revolución*, Alianza Editorial, Madril, 2013.
- [13] Lenin, V., “El estado y la revolución”, *Marxists.org*, 1917.
- [14] Lenin, V., *Entre dos revoluciones*, Siglo XXI, 2017, Madril, 105. orr.
- [15] Lenin, V., “El estado y la revolución”, *Marxists.org*, 1917.





INPERIALISMOA, ZENTZU POLITIKO BATEAN

Sarritan, teoria eta proposamen politikoak baztertu egiten dira gaur egun horiek formulatu ziren garaiarekiko egoera desberdinean gaudela azpimarratuz. Hala ere, askotan, ezberdintasunaren onarpena errealitatearen ezjakintasunean oinarritzen da; eta ez nahitaez iraganeko errealitateari buruzkoan, baizik eta baita orainaldikoari buruzko esperientzian ere, zeina iragana aztertu eta ulertzeko aukera ematen digun funtsezko esperientzia baita.

Leninen teoria ez dago arrisku horretatik salbuetsita. Garaiak aldatu direla esatea da bide erraza. Zailena garai horien ezaugarriak ematea da. Inperialismoaren teoria leninista aldarrikatu izan da, hain zuzen ere, hari dagokionez zahar geratu dena defendatuz: interpretazio aldebakarrekoa eta abstraktua. Kontrara, teoria hori kritikatu egin da, zaharkituta ez dagoena zaharkitu bilakatuz. Eta, hala ere, esan dezakegu ezer ez dela zaharra teoria horretan; izan ere, denboraren poderioz zaharkituta egongo balitz, teoria osoa egongo litzateke zaharkituta. Zaharkituta daudenak, ordea, interpretazio jakin batzuk dira, nahiz eta orain dela gutxi eginak izan. Hura babesten dutenek zatietako bat zaharkitu bilakatzen dute, modu partzial eta aldebakarrean defendatzen baitute, osotasuna baliaezin bihurtuz. Hura kritikatzeko dutenek osorik iraungi nahi dute.

Nire ustez, inperialismoaren teoria leninistari buruzko eztabaidaren funtsezko elementua garai inperialistako monopolioaren ezaugarrietan eta haren benetako edukian datza. Leninek defendatutako teoria inperialista eta haren zentzu politikoa salbatu ahal izateko, funtsezkoa da Leninek inperialismoari buruz idatzitako testuen izaera eta haren garaiarekin duten harreman estua ulertzea.


Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena lana 1917an idatzi zen, Mundu Gerrako egoera batean, non potentzia handiak munduaren banaketatik ari ziren lehian. Monopolioa funtsezko kategoria zen lehian zeuden bloke handien osaera ulertzeko, eta haren argazki erdiestatiko bat egiteak aukera eman zuen botere burgesaren esentzia identifikatzeko (botere burgesa milioika gizakiren bizitzak erabat kontrolatzen zituen botere gisa ulertuta). Halako egoera batean kapitalismoaren aurreko fase bateko –merkataritza-fasea– lege ekonomikoak desaktibatzen gaitasuna zuen botere absolutu gisa identifikatzen zen monopolioa, eta horrek lotura estua zuen unean nagusi zen egoerarekin, hau da, mundu mailako krisiarekin eta sarraski-gerrarekin, eta premiaz erantzuten zion egin beharreko lan politikoari: burgesiaren eta haren estatuen aurkako erabateko gerra zibila.

"Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena" lana 1917an idatzi zen, Mundu Gerrako egoera batean, non potentzia handiak munduaren banaketagatik ari ziren lehian. Monopolioa funtsezko kategoriaz zen lehian zeuden bloke handien osaera ulertzeko, eta haren argazki erdiestatiko bat egiteak aukera eman zuen botere burgesaren esentzia identifikatzeko (botere burgesa milioika gizakiren bizitzak erabat kontrolatzen zituen botere gisa ulertuta)

Baieztapen batzuen arabera, kapitalismoaren fase gorenarekin behin betiko ezabatzen da balioaren legea, monopolioa baita prezioen eraketa ia konzienteki zehazten duena –kontrako baieztapenak ere egiten dira, ordea: monopolioa merkatuarekin eta lehiarekin batera bizi dela, eta, beraz, Lenini politika pentsatzeko aukera ematen dion aldi baterako egoera abstraktua besterik ez dela–; hala ere, horiei ezin zaie erantzun alde batera utziz joera monopolistak eta geopolitika kapitalistak gero eta pisu handiagoa dutela prezioen gaineko eta milioika proletarioen bizitzaren gaineko mundu mailako kontrolean. Zentzu horretan, ezin da baztertu Leninen teoriaren balioa, zalantzarik gabe egoki interpretatzen baitu bizi garen garaietako berezitasuna eta Marxek berak *Kapitalean* deskribatzen eta frogatzen duen monopoliorako joera etengabea. Are gehiago, nahiz eta lehiak monopolioa sortu eta monopolioak lehia –funtsezkoa Marxen teorian, baina baita Leninen teoria inperialistan ere–, ezin dira joera abstraktu gisa berdindu; izan ere, monopoliorako joera da benetan nagusi ikuspuntu politiko batetik, eta funtsezkoa gerraren krisia eta irekiera iraultzailerako aukerak ulertzeko. Azken finean, krisiak monopolioen arteko lehia gisa egiten du eztanda. Leninek monopolio horiek deskribatu zituen eta kapital finantzario gisa ezaugarritu, zeina banku-kapitalaren eta kapital industrialaren bat egitearen eta Kapitalak estatu kapitalistaren egiturekin ehundutako sareen emaitza den. Azken gai horrek berebiziko garrantzia du, Kapitala ez baita mugimendu ekonomiko abstraktua, botere ekonomiko eta politikoa baizik, proletariotza estatuaren indarkeriaren bidez menderatzea.


Aurrez aurre dugun arazoa, beraz, monopolioa –zentzu leninista– kapital-harremanean nagusi den joera gisa aldarrikatzea da, zeinak aukera ematen baitigu borrokan ari diren talde geopolitiko handiak identifikatzeko, eta, batez ere, haiek burges gisa eta haien gerrak inperialista gisa identifikatzeko. Azken batean, arazoa Leninen teoria politikoak akademiako analisi zientifikoetatik berreskuratzean datza.

1917an Petrogradon argitaratutako V. I. Leninen *Inperialismoa kapitalismoaren etapa gorena* lanaren lehen edizioaren azala.



INPERIALISMOAREN OINARRI EKONOMIKOA

Leninen ikuspegiaren arabera, ekoizpen-prozesuen gaineko kontrol monopolikoa ezartzeko gaitasunean datza inperialismoaren oinarri ekonomikoa. Haren testuinguruan, kontrol hori gerraren bidez konkistatutako lurraldeen gestio politikoa bereganatuz ezartzen zen, hau da, potentzia kapitalistek kolonia bihurtutako lurraldeak banatuz. Kontrola, zentzu horretan, erabat politikoa da. Hori egitura ekonomikoan ere islatzen da; edo, hobeto esanda, egitura ekonomikoa da botere politikoa gauzatzeko modua azaltzen duen oinarria. Leninen garaiaren ezaugarri nagusia kapital-metaketa eta zentralizazio prozesu handiak dira, zentzu guztietan. Gehien nabarmentzen dena ekoizpen-zentro erraldoien eraikuntza da, fabrika handiena, non kapital espezifikoek salgai jakin baten ekoizpen-prozesu osoa kontrolatzen zuten fase guztietan. Botere politikoa ez da soilik burges talde jakin batzuek beren produkzio-guneetan konfinatutako proletarioen gainean duten erabateko nagusitasun gisa ezaugarritzen; baita burges horiek errealitatearen eta naturaren legeen gainean duten erabateko nagusitasun gisa ere, gutxi gorabehera kontzienteki kontrolatzen baitute zenbait merkantziaren ekoizpena. Talde batzuk, hala nola kartelak edo *trustak*, burgesiak errealitatearen gaineko kontrol monopolikoa ezartzeko gauzatzen dituen bat-egite kontzienteak dira.



Garai hauetan, neurri batean, despertsonifikatu egin da lantokiko menderakuntza burgesa. Orain beste figura sozial batzuk dira proletalgoaren gaineko kontrol immediatoa ezartzen dutenak; burgesiaren bitartekariak dira, soldatapeko lanaren formara subsumituak, klase-antagonismoaren banaketa-lerroa salbatzea helburu dutenak, nola eta proletalgoa diziplinatzearen funtzio burgesa proletarioari berari irekitako lanpostu bihurtuz, eskubide formalari dagokionez behintzat.

Hala ere, inperialismoaren oinarri ekonomikoak berbera izaten jarraitzen du; haren forma politikoa da aldatzen dena. Ez, ordea, haren bultzada politikoa: gerra eta konkista. Funtsean, gauza bera da: prozesu ekonomikoaren kontrol monopolikoa eta despotikoa, diktadura politikoaren mekanismoaren bidez ezarria. Eta haren bitartekorik funtsezkoena ere ez da aldatu. Gerra, lurraldeen konkista militarra eta periferiako herrialdeen gaineko menderakuntza politikoa (gobernu txotxongiloak ezartzearen bidezkoa) dira garai inperialista batean soldatapeko lanaren esplotazio-prozesu ekonomikoaren gaineko menderakuntza burgesaren adierazpen politiko funtsezkoenak.

Forma politikoa, ordea, jada ez da nagusiki kolonialista. Orain, konkistek demokrazia, hauteskunde burgesak eta hautagai autoktonoak esportatzen dituzte. Menderakuntzaren oinarria ez da horrenbeste ekoizpen-prozesuaren kontrol immediatoa ezartzea, baizik eta ekoizpen-prozesu hori Kapitalaren modu garatuenaren bidez kontrolatzea, hau da, kapital finantzarioaren bidez, zeinak ekoizpen-prozesuaren gaineko kontrol ekonomikoa gauzatzen baitu diruzko kapitalaren gaineko jabetza pribatuaren oinarrituta. Orain kapitalaren gaineko partaide-tza-tituluak erosten dira, eta bankuek baldintzak ezartzen dizkiete alde aurretik haiek beraiek sunsitutako herrialdeei ematen dizkieten kredituei.

Baina, egia esan, hori guztia Leninen teorian eta kapital finantzarioari buruzko azterketan aurkitzen da, nahiz eta oraindik kapital finantzarioaren menderakuntza guztiz hedatu aurreko inperialismo-forma iragankorrekin nahastuta ageri den. Haren teorian dagoeneko aurreikusita zegoen gaur egun ezagutzen dugun garapena; izan ere, gertatzen ari zen. Azken finean, inperialismoaren azterketaren funtza —inperialismoa kapitalismoaren fase goren gisa ulertuta— menderakuntza kapitalistak munduaren gainean zuen forma politikoa eguneratzea zen: kolonialismoaren gaindipena eta menderakuntza politikokoaren egokitzapena kapitalaren fase ekonomiko berrira (monopolioaren fasea).

Menderakuntza-forman izan diren aldaketak, hain zuzen ere, Leninen garaitik aldatu den horren ondorioa dira; hala ere, berritasun horiek jada txertatuta zeuden Leninen teorian, hain justu menderakuntza politikorako forma zehatzak oraindik erabat hedatu ez zituen garapen-joera gisa. Berria den hori eredu produktibo kapitalista da, eta, egun, ez da oinarritzen ekoizpen-kate osoaren gaineko kontrol immediatoan —zentzu fisikoan—, baizik eta kapital finantzarioaren forma garatuenaren bidezko menderakuntzan. Horrek esan nahi du konkistek jada ez dutela ageriko presentzia iraunkorrik behar lurraldean, baizik eta haien helburua herrialde menderatuetan mendekotasun ekonomiko erreala sortzea dela. Mendekotasun horiek azpiratze politikoaren bidez berritzen dira, eta, aldi berean, azpiratze politikoa berritzen dute. Eta hori posible da kapital finantzarioaren menderatze-modua jada ez delako soilik herrialdeen artean gertatzen, baizik eta baita ekoizpen-prozesuaren barruan ere.

***Leninen garaiaren ezaugarri nagusia kapital-
metaketa eta zentralizazio prozesu handiak
dira, zentzu guztietan. Gehien nabarmentzen
dena ekoizpen-zentro erraldoien eraikuntza da,
fabrika handiena, non kapital espezifikoek salgai
jakin baten ekoizpen-prozesu osoa kontrolatzen
zuten fase guztietan. Botere politikoa ez da soilik
burges talde jakin batzuek beren produkzio-
guneetan konfinatutako proletarioen gainean
duten erabateko nagusitasun gisa ezaugarritzen;
baita burges horiek errealitatearen eta naturaren
legeen gainean duten erabateko nagusitasun gisa
ere, gutxi gorabehera kontzienteki kontrolatzen
baitute zenbait merkantziaren ekoizpena***

INPERIALISMOAREN OINARRI SOZIALA

Aldatzen ez direnak ondorio sozialak eta garai inperialistak klase-konposizioari eta klase-borrokari dagokionez dituen espezifikotasun politikoa dira. Leninek jada ohartarazi zuen ezen, herrialde inperialistetan, herrialde txiroetako proletarioek sortutako gainbalioaren espoliazioak baimenduta, geruza pribilegiatu bat sortu zela langile-klasearen baitan, botere burgesaren oinarri sozial eta koltxoi gisa jarduten zuena.


Gainera, esan dezakegu langile-aristokrazia ez dela soilik burgesiaren boterearentzako babesa: langile-aristokrazia, langile-klasearen geruza pribilegiatua, botere burgesa da proletalgoaren barnean. Eta ez bakarrik soldataren forman proletalgoak sortutako gainbalioaren zati bat bereganatzen duelako, baizik eta, era berean, langile-klasearen baitan geruza txiroenarekiko (proletalga) barne-bereizketa sortuz diziplina sozialaren funtzio politikoa betetzen duelako, bai estamentu pribilegiatu gisa existitze hutsagatik, baina baita kontzienteki ere: bloke politiko bereizi gisa antolatzen da sozialdemokrazian eta erreformismoan; proletario mi-gratzailearen aurka jarduteko antolatzen da; estatu burgesaren egituretan betikitzen da eta haiek ia osorik beretzen ditu; politikarekin bat egiten du eta berak langile-klasearen estamentu pribilegiatu gisa duen existentzia-formara egokitzen du... Langile-aristokraziak, erdi-mailako klase gisa eratuta, burgesiak berak ordezkatu ezin dituen balio burges guztiak ordezkatzeko, eta balio horiek gizarte osoaren balio gisa sozializatzea ahalbidetzen du, burgesia monopolista jada balio kolektibo eta sozial ororen aurkako estamentu atzemanekin gisa existitzen den egoera batean.

Periferiako herrialdeei atzemandako altxorren ondorioz Ingalaterrako proletalgoak izan zuen burgeste-prozesua izan zuten mintzagai Marxek eta Engelsek. Leninek langile-aristokraziaren ideologia burges txikiak hitz egin zuen, edo, besterik gabe, langile-aristokrazia burges txiki gisa identifikatu zuen haren ideologiagatik. Marxismoaren kategoria-aparatuek klaseen analisiari eta klase-borrokari eta haren dinamismoari dagokienez duten aberastasuna infinituki handiagoa da alderdi burgesena baino, eta, bereziki, sozialdemokraziarena baino, azkeneko horrek ez baitu ulertzen burgesiaren aginduetara dagoen diziplinatze-figura sozial gisa jardun dezakeen langile batek, edo hura burges txiki bat izan daitekeen haren ideologiagatik. Klase-borrokaren elementu politikoa, borrokatzen den proletalgoaren duintasuna, klasea osatzen duten elementuak dira zentzu marxistan, klasea ez baita dagoena, baizik eta zer egiten duen, zer ekoizten duen eta zer joera duen borroka iraultzailerako.

Klase-borrokaren analisi marxistaren ezinbesteko irakaspena da Leninek langile-aristokraziari buruz egindako azterketa, hau da, hura potentzia zentralen baitan sortzen den inperialismoaren produktu berri gisa aztertu izana. Gainera, bat dator inperialismoa fase terminal gisa hartzen duen azterketarekin: gizarte kapitalistaren kolapsoa, haren usteltzea, burgesiak gizartearen eta haren balio positiboan ordezkari gisa jarduteko duen ezintasunean adierazten da; horregatik, beharrezkoa da erdi-mailako klaseak haren ordezkari jardutea, gizarte kapitalistaren bizitasuna sinbolizatzea eta nazioaren, kulturaren eta demokraziaren oinarriko printzipioak ordezkatzeko. Hala ere, gizarte kapitalista hausten den neurri berean hautsi behar du klase horrek, bera baita gizarte kapitalista.

Langile-aristokrazia (...) botere burgesa da proletalgoaren barnean. Eta ez bakarrik soldataren forman proletalgoak sortutako gainbalioaren zati bat bereganatzen duelako, baizik eta, era berean, langile-klasearen baitan geruza txiroenarekiko barne-bereizketa sortuz diziplina sozialaren funtzio politikoa betetzen duelako, bai estamentu pribilegiatu gisa existitze hutsagatik, baina baita kontzienteki ere

Gizarte kapitalistaren kolapsoa, haren usteltzea, burgesiak gizartearen eta haren balio positiboan ordezkari gisa jarduteko duen ezintasunean adierazten da; horregatik, beharrezkoa da erdi-mailako klaseak haren ordezkari jardutea, gizarte kapitalistaren bizitasuna sinbolizatzea eta nazioaren, kulturaren eta demokraziaren oinarriko printzipioak ordezkatzeko. Hala ere, gizarte kapitalista hausten den neurri berean hautsi behar du klase horrek, bera baita gizarte kapitalista



(...) kapitalismoaren fase gorenean sortutako baldintza politiko berriak eta haiek estrategia iraultzaileari zegokionez zekartzaten ondorioak aztertu zituen Leninek, garaiko beste idazki batzuetan garatu zuen moduan. Baldintza horiek honako hauek dira: 1) krisi kapitalista eta bultzada belikoa, eta 2) langile-aristokrazia iraultza-krisia saihesten duen itsasgarri sozial gisa. Horietatik klase-independentziaren kontzeptu bat eratortzen da, klase-independentziak hartzen duen forma zehatzean sostengatua: proletalgoaren diktaduran

MONOPOLIOA BOTERE BURGESAREN TEORIA POLITIKO GISA

Inperialismoa, kapitalismoaren fase gorena liburuxkaren zati handi bat monopolioak sortzeko kapitalismoak duen joera ekonomikoa datu bidez azaltzera bideratuta dago. Leninek monopolioa inperialismoaren oinarri ekonomikoa gisa identifikatu zuen. Monopolio horrek, monopolio izateagatik, geldialdia eta deskonposizioa dakartza berekin, haren printzipio gidaria ez baita ekoizpen-indar kapitalisten garapena, lukurreria eta errentaren erazupena baizik. Prozesu hori kapital finantzarioaren eraketaren bidez gertatzen da –diruzko kapitalaren eta kapital industrialaren arteko fusioaren emaitza–, zeinaren erdigune nagusia banku monopolis-tak baitira. Horiek dira kapitalen esportazioaren bidez gainbalioaren ekoizpen-prozesuaren kontrola hartzen dutenak eta etekin errentistak ateratzeko helburuarekin monopolizatzen dutenak.

Baina prozesu horren berme bakarra indarra da. Inperialismoak berekin dakar izugarri handitzea bultzada belikoa, desjabetze errentistaren oinarrian dagoen menderakuntza politikoa bermatzeko. Era berean, oinarri sozial bat eskatzen du, bultzada beliko inperialistari bermeak emango dizkiona eta hura justifikatuko duena haren produktu positiboa izateagatik. Azken batean, analisi ekonomikoa babespean, kapitalismoaren fase gorenean sortutako baldintza politiko berriak eta haiek estrategia iraultzaileari zegokionez zekartzaten ondorioak aztertu zituen Leninek, garaiko beste idazki batzuetan garatu zuen moduan. Baldintza horiek honako hauek dira: 1) krisi kapitalista eta bultzada belikoa, eta 2) langile-aristokrazia iraultza-krisia saihesten duen itsasgarri sozial gisa. Horietatik klase-independentziaren kontzeptu bat eratortzen da, klase independentziak hartzen duen forma zehatzean sostengatua: proletalgoaren diktaduran.

Burgesiaren botere politikoaren oinarria aztertzeko oinarrizko duen bere analisisa monopolioaren nagusitasunean, burgesia bera botere-bloketan nola eratzen den aztertzeko. Hala ere, monopolioa ez dago lehiatik salbuetsita. Leninek berak dio lehia orokorreko testuinguru batean garatzen dela, eta, are gehiago, lehia hori ez dela joko ekonomikoa soil batera mugatzen, baizik eta monopolioen arteko borroka politikoa eta gerra inperialista dakartzala.



***Monopolioari esleitutako botere absolutuak,
termino politikoetan, botere diktatorialak dira.
Monopolioa, menderakuntza absoluturako
joera, diktaduraren kontzeptuari dagokio***

Monopolioaren teoria leninistak, beraz, aukera ematen digu politikan pentsatzeko menderakuntza burgesaren garapen aurreratuenaren –eta azkene-koaren– testuinguruan. Monopolioari botere burgesaren garapen-fasearen gailur gisa esleitutako ezaugarri politikoak dagoeneko agertzen ziren Kapitalaren faserik goiztiarrenetan. Izan ere, Kapitala ez da modu abstraktuan garatzen garapen ekonomiko inbertsonal baten ondorioz, baizik eta norabidez garatzen da, era konkretuan, zentzu bakarrek: burgesiak proletalgoaren gainean ezartzen duen botere politikoa garatzea, proletalgoa menderatzea. Beraz, monopolioari esleitutako botere absolutuak, termino politikoetan, botere diktatorialak dira. Monopolioa, menderakuntza absoluturako joera, diktaduraren kontzeptuari dagokio.

Izan ere, soilik diktaduraren eta botere despotikoaren metaketaren terminoetan pentsatzen badugu kontzebitu dezakegu teoria politiko bat. Horrek proletalgoari ere eragiten dio. Proletalgoaren diktadura ez da baliabide literario moduko bat, politika eta klase-borroka ulertzeko modu bakarra baizik. Leninek berak esan zuen: marxista ez da klase-borroka onartzen duena; "marxista da klase-borroka onarpena proletalgoaren diktaduraren onarpena hedatzen duena".

Monopolioak antzeko lekua du Lenin inperialismoaren teorian. Burgesiaren hainbat alderdik boterea metatzeko, elkarren artean lehiatzeko eta lehia horrek gerra inperialistan garatzeko duten joera funtsezko elementuak dira bizi garen errealitatea ulertzeko. Monopolioaren teoria botere politiko burgesaren teoria da, haren mugen eta gure aukeren teoria. Ultrainperialismoaren teoria kautskiarraren guztiz kontrakoa da, hark antagonismo politikoa eta klase-antagonismoa mundu mailako garapen harmoniatsu moduko batean diluitzen baititu; izan ere, ultrainperialismoa indarkeriaren bidez garatu badaiteke ere, indarkeria hori bere forma politikotik, klase borrokatik, erabat gabetua agertzen da.

Zalantzarik gabe, aldarrikatzen dugun Lenin da Lenin posible bakarra: burgesiaren aurka hiltzeraino borrokatu zena arlo guztietan. Errebisionismoari eta oportunistoari tarterik txikiena ere uzten ez ziena. Eta gaur hizpide dugun gaian, proletalgoaren diktadurari forma zehatza eman zion Lenin aldarrikatzen dugu: burgesiaren aurkako borrokan, gerra zibila egitera deituz; eta Lehen Mundu Gerran beren bloke inperialistaren alde agertuz proletalgoaren kausa internazionalari traizio egin ziotenen kontrako borrokan, haiekin hautsi eta klase-independentzia birkonkistatzera deituz. ●

Argitalpena
2024KO ABENDUA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia



